




Nañarriri begira

Rufino Iraola





Rufino Iraola Garmendia 1945eko azaroaren 16an jaio zen; Zaldibiko Olegi baserrian. Arantzazun eta Beasaingo La Salletarretan ikasi ondoren, Zumarragako *Esteban Orbegozo* lantegian aritu zen. 1970ean, Zaldibiko *Muebles Yanyra* aldatu zen. Gero handik Beasaingo CAFera. 1983an, Urretxuko Udal Euskaltegian hasi zen irakasle; handik Zarautza joan eta, gaur egun, Lasarte-Oriako Udal Euskaltegiko irakaslea da. Maisu ikasketak egin ditu. Ezkondua eta bi seme-ren aita da.

Bertso-arloan oso ezaguna da Rufino Iraola. Antolatzaile, epaimahaiko, kritiko eta bertso-jartzaile da, besteak beste. Dozenatik gora ditu irabazitako sariak: *Lazkao Txiki*, *Orixo*, *Zapirain anaiak*, *Xalbador saria*, etab. Liburu honetan aurkitzen dira denak.

Ipuin-lehiaketak ere baditu irabaziak. Esate baterako, *Irun Hiria Saria* eta *Antonio Maria Labayen Saria*. Bestalde, dozenerdi bat liburu argitaratu ditu, eta artikulatuak ere erruz, *El Diario Vasco*, *HABE*, *Txintxarri* eta abarretan.

Nañarriri begira



SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Rufino Iraola

Nañarriri begira

Auspoa Liburutegia
2003

© Rufino Iraola

© SENDOA ARGITARALDIA

ISBN: 84-95378-63-9

Lege Gordailua: NA. 452-2003

Fotokonposizioa eta imprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Lizarra (Nafarroa)

Pedrori

... baina ezereztu da izana ematen.

Martintxuloko ura

MARTINTXULO iturria da. Urte asko dira, egia esan, ikusi gabe nagoela eta handik tragorik egin ez dudala, baina haurtzaroan eta mutil-koskorretan, uda eta negu, iluntzero ekartzen nuen ura iturri hartatik. Oroitzapen bereziak ditu niretzat, eta, bertso liburu hau idazteko xedea hartu dudanean, neu batere bila saiatu gabe, haren irudia etorri zait burura. Agian, udako iluntze izartsu haietan, mutiko hura (ni) bertso kantari joaten zelako ur bila. Edo, artean txikiagoa nintzela, besoetan eramaten nindutelako haraxe eta bidean bertsoak kantatzen zizkidatelako.

Ni jaio nintzen baserria, gure Olegi, eta iturriaren artean hirurehun metro eskas egongo ziren. Enparantza alde-tik irten, Soro Txikitik barrena, hasiera-hasieran aran-arbola zuen sagastia pasa eta beherala iristen zen Martintxulora; zoko batean zegoen, gainaldean sagar-arbola batzuk eta alboraxeago gaztainondo handi bat zituela; handik urrutira gabe, halaber, intxaur-arbola, lizar lerdena eta urritz zarpail bat ere baziren. Orain ere hantxe dago iturria. Sagar eta gaztainarik ez dago, lizarra aspaldi bota zuten, urritza ez da ageri, intxaurra zahartu egin zen, eta iturria bera ere agortu da.

Giro eta ingurumari horretan jaio eta hazia naiz ni; batez ere, hezia. Ez dudala panorama ederra deskribatu iritziko dio zenbaitek, eta ez luke gezurrik esango. Ez gintuzke harritu behar, ordea, denboraren aizkorak, begiratu batera, beti duela berekin epai zorrotza, gupidarik gabe kolpatzen duela naturaren joan-etorria; hala ere, joandakoek beti uzten dute fruiturik, aldez edo moldez, eta seguru nago desagertzen den oro sortzaile ere badela, eta

nire bertsook panorama horren emaitza dira, giro horretantxe umotutako fruta.

Nire haurtzaroko mundu erreferentziala oso laburra da: Nañarri mendia, Olaeta auzoa, Olegi eta Igartzeta (ama zenaren jaiotetxea) baserriak, Benta Berri taberna eta Orendaingo autobusa. Agian, azken hori zen munduarekin lotzen ninduena. Zirkuito laburra izanik ere, ez dakizue, ordea, zeinen garrantzitsua izan den niretzat; ez dago ezer sakonagorik haurtzaroko mundua eta han islaturik ikusitako irudiak baino. Ez dut nire burua jakitun jotzen, baina bai ikasten saiatu dena. Ahalegindu naiz, batik bat literaturaren bidez, mundu zabala ezagutu eta ahalik eta kosmopolitena izaten; neurri batean, lortu ere lortu dudala uste dut, baina gauza bat da ideologiak eta ikasitakoak itxuratzen dizuten nortasuna, eta oso bestelakoa bizi izan zaren medioak eta inguruak zuregan txertatzen dituzten izatea eta izaera.

Ez dago ezer gauza funtsezko eta oinarrizkoagorik nork bere izatea eta izaera onartu eta asumitzea baino. Horretan zorte handia izan dudala uste dut: inolako mitorik sortu gabe eta harrotasun sanoenarekin onartu dudala uste dut nire jatorria. Horrela ez egiteak eskizofrenia dakar, eta, kasu honetan, metafora hutsa baino zerbait gehiago litzateke hitz horren esanahia. Niri, benturaz, nabilen tokian nabilela, Olegiko mutil-koskor hura azaltzen zait alde guztietatik, barrenean baitaramat; betiko, honezkero.

Gainera, ez nintzateke inor haurtzaroko oroitzapenik gabe: Igartzetan ematen nituen igande arratsaldeak eta gure amarekin batera biltzen ziren emakume kontulariak (zentzurik onenean), Olegin entzundako bertsoak, Nañarriko puntan egunero sortzen ikusten nuen eguzkia, Olaetako auzolanak, Benta Berriko bertsolariak, etab.

Nire hizkuntza bera ere, funtsean, ordukoxea da. Horregatik, erderaz ikasi aurretik neureganaturiko "barrundatu", "kontsegitu", "entenditu", "segi", "lista", "ofizina", "lapitza", "karameloa", "konejua", "kolorea", "sufritu", "karnabalak", "eskribitu", "letu", "pizarra", "pintatu"...

munduko hitzik euskaldunenak iruditzen zaizkit, eta inolako konplexu eta kezkarik gabe erabiliko lituzke Olegiko txikiak. Beste hitz eta esaldi batzuk dira nire barreneko mutil-koskorrari arrotz zaizkionak: "Eugik partidu ona jolastu du", "bere burua hiltzen saiatu zen" (hori egiteko, suizida horrek masoka ere izan behar zuen puska bat), "trena etorri arte denbora egiten nago", "aurtengo Tourrean mendi gehiago faltan bota dut", "pilotara jokatu", "igel batean bihurtu" eta antzekoak.

Nire bertso liburuan ikusiko ditu irakurleak gai sakinak, filosofikoak, baina ez engainatu, mutil-koskorrak galdetuko ez lukeen ezeri ez diote erantzuten; beraz, nire oraingo kezka, oinarrian, aspaldikoak dira, nahiz eta formulazio diferenteak erabili eta mutil-koskorrak beste hitz batzuekin, beste era batean, erantzungo liekeen.

Hauxe zen dena; hemendik aurrera bertsoekin uzten zaituztet. Nik ez dizuet besterik aurreratuko, zuek esan ni nor naizen, edo liburuan nor aurkitu duzuen.

Liburuxka honekin
nator zuengana:
Martintxuloko ura
bertsotan emana,
urte batzuen baitan
egindako lana,
borondate onenez
nik eho dudana.



Lisboako Belen inguruko parke batean, emaztea eta lagun batzuekin; mutikoa bizkaitar batzuen semea da.

Bertsolaritzaren haritik Zaldibiraino

Bertsolaritzaren historiaren aipamen laburrarekin hasi nahi nuke liburua, berez honako egindako lana ez bada ere; aitzitik, Zaldibiko Kultura Etxeko arduradunak eskatuta prestatu nuen hau, 2000ko martxoaren lehen egunetan; eta bere horretantxe aldatu dut liburura, ikuspegi hori ere, bere laburrean, interesgarria izango delakoan.

Bertsolaritza, beste literatur adierazpide batzuekin konparatuta, aspaldikoa bada ere, historiaren ikuspegitik ez da hain zaharra, nahiz eta aurtengo Bertso Egunaren haritik besterik pentsa dezakegun, "Bertso Eguna 455" le-mapean ospatu baita, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* gogoratuz. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi garai hartan bertsolaririk ez zenik, ez dagoela konstantziarik baizik. Badago Nafarroako Gortean euskal trobadoreak bazirela defenditzen duenik. Ezezkoa baino baiezkoa pentsatzeko arrazoi gehiago dauden arren, frogaz ez gaude hornituegi, eta hobe izango dugu sailkapen klasikora jo-tzea.

Eta sailkapen klasikoaren arabera, 1800. urtean hasia da euskal bertsolaritza. Fernando Amezketarra da hari muturra, eta, harekin batera, Izuelako Artzaia eta Bordel. Hurrengo taldea (1839-1976) Xenpelar, Bilintx, Etxahunek... osatuko lukete. Ondoren (1876-1935), Pedro Mari Otaño, Txirrita, Pello Errota, Kepa Enbeita eta Udarregi aipa genitzake. Nik bertsolari guztiak pilatu ditut hemen, baina badaude arazo batzuk; esate baterako, Xenpelar, Bilintx eta Otaño bertsolari handitzat jo izan dira beti; horiek, ordea, batez ere bertso jartzaileak ziren, eta gu, hemendik aurrera behintzat, bat-bateko bertsogintzari lotuago arituko gara.

Bat-bateko bertsolaritzaren daturik fidagarrienak oso berriak dira, gehienez ere 1935ko "Bertsolari Egunaz" edo txapelketaz gerozkoak. Puntu honetan hasten da, nolabait esateko, bertsolaritzaren aro berri bat: Txirritaren garaia amaitu eta Basarrirena etorriko da, neurri batean Gerra Zibilak zapuztu bazuen ere.

Beraz, gerra osteko bertsolaritzaren alorrean murgilduko gara orain. 1960an egingo da lehen bertsolari txapelketa handia. Puntu honetara iritsirik, Joxerra Garziak bere Doktore tesian egiten duen banaketari lotuko gatzazkio, beti ere bat-bateko bertsolaritza kontutan hartuta. "Bizi-raupenezko bertsogintza" deitzen dio 1960-1971 tarteari. Horrek, Basarri eta Uztapide buru direla, Xalbador, Lazkao Txiki, Lasarte, e.a. hartzen ditu. "Erresistentziatzko bertsogintza" aipatzen du hurrena; 1972-1979 tartea hartzen du, eta, zalantzarik gabe, Azpillaga eta Lopategi dira protagonistak.

Xabier Amurizak markatu du hurrengo aroa, demokrazia osteko lehenengoa. 1980-1990 tartea hartuko luke. "Oihartzun sozial eskaseko bertsogintza" deitzen dio. Eta EAEko Autonomia Estatutuaren osteko zatiketak bertsozaleengan ere eragina du. "Kontestu ezpalduko bertsolaritza" ere deitzen dio Joxerra Garziak.

Autore beraren ustetan, "Bertsomaniaren urteak" (1991-1993) datoz gero. Egaña, Lizaso, Sarasua, Euskitze, e.a. Bertsoa Euskal Telebistan hasi zeneko garaia da. Hor boom izugarria izan zuen bertsolaritzak, denok dakigun bezala. "Mañukorta fenomeno" ere (berezia bestalde) garai horretakoa dela uste dut.

Azkenik, 1994-1998 tartea dator, Garziak "Bertsomaniaren osteko belaunaldiak" deitzen diona. Hark aurreko sailean sartzen baditu ere, nik hementxe kokatuko nuke belaunaldi berria, hau da, Iturriaga, Igor Elortza, Maialen Lujanbio, Irazu, Mendiluze, Maia eta abarrek osatzen dutena.

Jira azkar bat eman dugu bertsolariaren landa orokoretik. Orain Goierriko batzuk aipatuko ditugu. Goierri


izan den bertsolaririk handiena, dudarik gabe, Lazkao Txiki da. Gaur egun ere badira bertsolari onak gure eskualdean. Orain isildu antzean badago ere, ez dago ahazterik bere garaian hainbat lan egindako Eusebio Igarzabal bat. Bestetik, Murua, Mendizabal, Zeberio, Goiburu, Begiristain, e.a. nola utzi aipatu gabe? Gazteagoengana jota, Munduate, Sarriegi, Sarasola, Goikoetxea, e.a. oso kontutan hartzekoak dira.

Azkenik, heldu gara Zaldibiraino. Zaldibian bertsolari handi-handi horietakorik izan ez bada ere, oso herri bertsozalea izan da beti. Garai batean Zaldibiko bertsozalea Benta Berrin kokatzen zen. Hara etorri ziren lehenengo aldiz Basarri eta Uztapide, han hasi zen Lazkao Txiki. Gero, herriko soziedadeetan, hamaika bertso saio entzun dugu. Adibide bat ipintzearren, urte berean sei aldiz etorrita daude Azpillaga eta Lopategi.

Bertsolari ospetsurik ez dela izan Zaldibian esan dut, baina Artxanberri hemengoxea zen. Hura bazen bertsolari handia; plazetan ibili gabea, ordea. Plazetan gehien ibili dena Patxi Iraola izango da, eta Joxe Mari Aranburu ere ibilia da gutxi-asko; Altzo Txiki ere bai zedozer. Garai batean, hala ere, tabernan bertsoetan korriente egiteko modukoak asko omen ziren gure herrian. Oraindik badugu horien ordezkari bat: Hilario Nazabal.

Bertso jartzaileen artean Patxi Errota izan da ugariena. Muskeldiko Damianek ere ipini izan ditu bertsoak. Zuentzat informazio hau prestatu duen honek ere jardun izan du bertso batzuk moldatzen. Hain zuzen, nire denboran ipinitako lehenengo bertsoa (apur bat moldatuta) gogoratu nahi nuke amaieran, iazko partean zendu zen bertsozale handi bat, Olaako Lontxo, omentze aldera; eta, harekin batera, nola ahaztu Marrotxeko Bautista, edo Albitxerriko Loontxito eta gure artetik joan diren beste hainbeste bertsozale sutsu?

Lorentxo nik zuretzat
ditut gaur kantuak,
handiak direlako
zure merituak;
auskalo zenbat diren
zuk harrapatuak:
azeri edo azkonar
ta basakatuak,
olaitegiko etsai
madarikatuak?



Lorentxo Sukia oso bertsozalea zen. Elkarren inguruan bizi ginen eta asko hitz egiten genuen. Orain dela urte batzuk hil zen. Nik ipini nituen lehen bertsoak berari eskeini nizkion.

Esan bezala, horixe da nik sortu nuen lehenbiziko bertso idatzia. 1972an paratutako bertsoak dira. Bertsoen oinean ohar gisa esaten dudana aldatuko dut hona hitzez hitz:

"Lorentxo Sukia bertsozale eta piztia harrapatzaile amorratua da. Berez Urretagoena baserrikoa izanik, Olaa baserrian bizi da, eta Beasaingo Fabrika Haundira doazen uren kanalak zainduz eta oiloak gobernatuz mendian pasatzen du eguna. Bertsoetan esaten dudana bezala, piztia ugari harrapatu ere bai. Hona, bada, goiko horren segidako beste batzuk:

Mendian bizi zara
txabola batean,
piztiz inguraturik
basoak betean,
beste lagunik gabe,
txakurra katean,
ehizean eginez
atariko atean,
pausorik eman gabe
inoren kaltean.

Hor dabil ote eta
txilar denak miaz,
pizti batzuk izutu,
ta besteak hilaz;
lanerako hornitzen da
zepo eta makilaz,
basurde bat galanta
bota zuen iaz,
harriturikan gaude
horren ausardiaz.

Bizia izan zara,
hala ere zahartu,
nahiz eta oraindik
ez zaren baldartu,
jubilatuta taldean
behar duzute sartu,
urteek zaituztelako
hortara behartu,
ongi merezi duzun
deskantsua hartu.

1976an, Bilintx Saria antolatu zen. Ez dakit nork irabazi zuen, baina nik ere bidali nituen batzuk. Zuzen esateko, bost bertso sorta bidali nituen. Hura afizioa! Denak ez ditut gogoratuko, sorta baikoitzeko pare bat edo hiru bat baizik. Lehenengoak (76-III-29) "Amodiozko penak" du izenburua. Hona agindutako hiru horiek:

Heriotza igaro
da gure etxetik,
ez gara joan baina
beraren atzetik,
pasa behar izan dut
herio latzetik:
maitasun bat ostu du
nire bihotzetik.

Lehen nire bihotzak
bazuen jabea,
orain bere nagusi
da bakardadea;
denbora laburrean
doble edadea;
luzaro nola bizi
zorion gabea?

Bere alde eginaz
Jaunari otoitza,
berari eskainiaz
minutu bakoitza,
gogoratuz betiko
bildu ginen goiza...
holaxe gordeko dut
nik haren oroitza.

Hurrengo sailak "Amodioa" du izenburua, huts-hutsik. Oinean datorren oharraren arabera, 1976ko uztailaren 17an jarriak dira. Hona beste hiru:

Amodioa, zugana nator
malko batzuk isurtzera,
berdin pozezko sentimenduak
zure berotan urtzera,
zugana nator merezi duzun
esker ona bihurtzera,
zugana nator zure alderdi
bikoitz denak agurtzera:
zuk sortzen duzu gizona eta
zuk sartzen duzu lurpera.

Amodiozko geza-gaziak
ez naiz probatu gabea,
hasten denean edozein duzu
umila eta noblea;
gero okertzen badira gauzak,
hura izate pobrea!
Halakoetan agudo moztu
ez al da askoz hobea,
berehalaxe gozaten da-ta
sufritutako doblea?

Zein ederra den maitatutzea
eta maitatua izan!
Gauz serioak ez ditzagula
hartu hutsaren peskisan;
amodiorik ez da sortuko
ezkondu ondoren elizan,
aurrez behar du ongi landua,
ohituraz "BAI"rik ez esan,
zimentu txarren erruaz gero
porrotik egin ez dezan.

Hurrengo sortak "Maitemindu batzuen kasua" du
idazpurua. Neska eta mutil baten arteko elkarrizketa da.

Neskak: Gau beranduan atea.
Nire baitan, "nor ote da?",
ileak zutik nituelarik,
beldurrez betea.
hots egin zuen: "maitea!,
azkar etorri zaitea,
nahi ez baduzu disgusturen bat
egun izatea".

Neskak: Baina, maitea, zer gero!,
nik ez zintudan espero.

Mutilak: Ordu luzeak egiten ditut
esna egunero:
arnasestu, odolbero,
neure ideietan ero.
Orain ihesi goaz, salatu
gaituztenez gero.

Neskak: Hau notizia atera!,
desterru edo katera,
ene maitea, behar duzula
joan nonbaitera,
sorterritik apartera;
zer den kontuak atera,
baina ni ere hor izango naiz
zurekin batera.

Mutilak: Gizarte on bat sortzea,
gerta liteke lortzea,
eta betiko zure ondora
berriz etortzea,
edo tranpan erortzea,
berdin hilda ehortzea,
baina inoiz ez nire maitasun
biok agortzea.

Neskak: Hori lortu ezinean,
desgrazirik haundinean
eror zintezke hor zabiltzala
zeure ekinean;
hori gerta dadinean,
zure hilobi gainean
nire bihotza ezarriko dut
maitasun finean.

Bilintx Sarirako prestatutako bertsoekin jarraitzen dugu. Segidako hauek 1976ko apirilaren 16an paratuak dira. "Norberarentzat ez den lorea oinazetarako" deitzen da. Pare bat ezarriko ditut:

Sortu zenetik ezaguna dut
aingeru miragarria,
halabeharrez gure alboan
zeru berak ezarria;
aldi berean sortarazten dit
pozkiada eta larria,
eta ozpinez ase nahi luke
nonbait nire egarria.

Hark beste inork ezin dezake
nire oinazerik kendu,
baina horretaz kupitu gabe
ezezkoa esaten du;
niretzat ez den lorea bistan,
hori mina ematen du!
Ez al da hobe biotatik bat
norabaitera aldendu?


Laugarren eta seigarren puntua direla medio (esaten du/ematen du), baliteke bertso horrek eztabaida piztea; hori ere polita da.

Nañarri mendia (1975)

Mendi bati bertsoak
noa ipintzera;
askok izango dute
bere aditzera;
izan ere, Nañarri
ederra hain zera
Jainkoak bidalia
Zaldibi zaintzera.

Baldin zerua inoiz
badago oskarbi,
Eguzkia du lagun
goiz ta eguerdi;
gero tokatzen bada
gauean ilargi,
Goierrri guztiraino
egiten du argi.

Udaberrian ongi
osatzen da euriz,
eta udan nork berdindu
hori apainduriz!
Udazkenean gozo
eguraldi guriz,
eta neguan, berriz,
janzten zaigu zuriz.



Bi alditan ipini dizkiot bertsoak Nanariri, izan ere bai bere jaiotzetik eta bai orain bizi den tokitik, jaiki orduko bera dauka aurrealdean.

Astoa eta idia (1974)

Astoak:

Nire sorbalda gaina
beti kargatua,
eta bizkarrekoak
sarri kobratua,
ederki pagatzen dut
gaizki obratua,
jana, berriz, askotan
zuei sobratua.

Idiak:

Uztarri astun hori
adarren gainean,
goizetik iluntzera
gabiltza lanean,
beroak aterata
patsa mingainean;
astoa, bizi zara
idiak ainean.

1975. urtean Pilota Federazioaren Urrezko Ezteiak izan ziren. Hori dela eta, bertso paper lehiaketa antolatu zuen. Lehiaketa hura, orduko gehientsuenak bezala, Xalbadorrek irabazi zuen. Nik ere bidali nuen sorta bat; bertso onik ez dakit bazen, baina kopuru ederra bai, behintzat, sorta hark 14 bertso baitzuten. Hiru ezarriko ditut hemen:

Txukun atsegin, polit, bikaina,
eder ta harrigarria;
ezer badago, zu bai zarela,
pelota maitagarria.
Toki askotan bazaude ere
gaur zabaldurik jarria,
zu etzerade beste inondik
ekarri edo etorria,
baizik benetan euskalduna da
pelotaren jatorria.

Pelotariak Euskal Herriai
fama handia eman dio;
hobe genuen joko bakoitzak
hoinbeste eman balio;
munduan zehar hainbeste mutil
eta ez da misterio;
gu nor geraden erakusteak
ez al du asko balio?
Hara noraino iritsi garen
pelota dela medio!

Zaharrak urritzen doazen heinean
berriak zenbait aurpegi
ikusi nahi guk, pelotaritzak
aurreraka dezan segi;
landare onak badatoz eta
ez aztoratu gehiegi;
beste guztiak bajatu gabe,
ipintzen ditut gazte bi
jarraipenaren eredu gisa:
Gorostiza eta Retegi.

Kargu hartzaileari

1974ko Zepai Sarian, beste guztien artean, honako gai hau ipini zuten: "Andregaiari musu eman diozulako kargu hartu dizun aguazilari". Bertsoak entzuten ari nintzen bitartean niri hauxe bururatu zitzaidan:

Ez da gizona gauza horrekin
harritzen aguazile,
aitzakia du bera dagola
ohitura onen zaintzaile.
Pekatu al da deklaratzeari
neskatxa baten maitale?
Ez al dakizu musua dela
maitasunaren seinale?




Rufino bere koadrilarekin, urteroko bazkaria egin ostean.



Sarritan ibilia den arren, 1993 ez zen izan bertso epaile baizik eta gero liburu ateratzeko, bertsoak hautatzen ari da.

Komuna (1974)

Gure hondakinak zugana doaz,
gure mantenu izanik,
eta badago baten bat beti
zure gainean etzanik;
askotan, berriz, lotsaz ez dugu
esaten zure izenik,
baina ez dago munduan inor
zutaz behartzen ez denik...
Beste edozein gauza bezala
estimatutzen zaitut nik.



Lazkao Txiki, Zaldibin zarren omenaldia 6-9-1981

Lazkao Txiki (1975eko iraila)

Bertso sorta honekin 1976ko Xenpelar Bertsopaper Lehiaketako hirugarren saria eskuratu nuen. Xalbadorrek irabazi zuen, eta Olea izan zen bigarren. Hona nire hirugarren sari horri dagozkionak:

Kabi baten sortu ote da
inoiz holako piztirik?
Bertso batzugin nola gorald
merezi duen guztirik?
Batzutan barrez jarriko gaitu,
bestetan malkoz bustirik,
baina ez zaigu sekula arrotz
txori horren abestirik.

Moko ttenttea, kantari fina,
apala eta iaioa;
dudarik gabe mundu hontara
bertsotarako jaioa.
Beti motxegi gertatu ohi da
Joxemigelen saioa;
inor badago, zu bai zaudela
zeure merituz igoa.

Hiztun goxoa, buru argia,
ez da ezertan makala;
bertsoarekin zerbitzaten du
Euskal Herriko hegala;
euskararentzat langile ona,
bihotz ta eskuzabala;
txiki handirik munduan bada,
horixe bai hala dala!

Bere bizia itsatsia da
herriarengan zeharo,
Lazkao Txikik egun bat ere
ez du alferrik igaro;
gure baratzak eman dezala
fruitu hortatik oparo,
bertsolariak gure lurrean
iraun dezan txit luzaro.

Zuk hazten duzu eta osatzen
gaurko bertsolari lista,
arrazoietan pauso zuzena
inoiz ere ez irrista;
etorritz, berriz, nolakoa den
esanda ezin sinistra,
eta inori ziriak sartzen
berdin gabeko artista.

Txikia baino ez zaizu falta
bertsotarako sasoirik;
mihizto zorrotza hizketarako
baina ez dauka pozoirik.
Ez da ezagutzen ez zaituen
sagu eta arratoirik.
Euskal Herriak zu omentzeko
ez du falta arrazoirik.

Bilduko gara zure omenez
lagun eta kidekoak,
lehendabiziko Astorian
eta gero gerokoak.
Bertsolariak izango dira
gradu handienekoak,
baina gehienez zu, Joxe Migel,
zeu zaren adinakoak.

Ez da faltako umore onik
algara eta txisterik,
bere ondoan bildutzen denik
ez da egongo tristerik;
baina denentzat ez da izango
leku lehor bat ixterik,
eta ez dut nahi zita horretara
berandugi iristerik.

Urbia dela bazkaltokia
jendeak esan digunez,
hura mahaia osatuko da
adiskide eta lagunez.
Herri osoa zu besarkatzen
laztan goxo ta bigunez,
joaten denik ez da ahaztuko
han pasatako egunez.

Nik hamar bertso asmatu ditut
noizbait ibilin, ibilin;
auzotar batzuk geranez gero
omena nahi nion egin.
Jakin dezala bere bizitzaz
zer pentsatzen den Olegin.
Gora bihotza, Joxemigel ta
bere sortetxe Abalin.



Joxe Aguirre

Joxe Agirre (1974)

Urte horretako Zepai Sarian honako gai hau ipini zuten: "Zein bertsolari gustatzen zaizu gehiena eta zergatik". Ni bertsoa entzuten ari nintzen, eta bertsolariak beren bertsoak asmatzen eta botatzen ari ziren bitartean niri hauek biak etorri zitzaizkidan burura:

Kontzientzirik haundinarekin
jokatuko dut gaur ere,
eta horrekin ez dauka inork
zertan jarririk haserre;
beste guztiak maitatzen ditut,
ez diet kentzen ezer'e,
baina niretzat onentsuena
juzkatutzen dut Agirre.

Biak ederki ibiltzen ditu:
puntu motx eta larria;
bertso bat ez du inoiz bi aldiz
beti sortzen du berria;
gaia sakontzen ere ez dugu
hori gizon elbarria;
diruarekin ez da ordaintzen
horrek duen etorria.

Ordiziatik Zaldibira

Hiru bertso dauzkat idatziak Ordiziatik Zaldibirako errepidearen egoerari, eta bertso bakoitza modu batean baino gehiagotan; 1976ko kasua da, eta ez dakit zein bertso izango den argitaratua. Hori bai, badakit herriko kronikan atera nituela. Hona haietako bi:

Horrelakorik ez dut
ikusi egundaino:
Ordizitik hasita
Zaldibiaraino
hobe da mendiz joan
kaminoan baino,
dena bat da: erreten,
bide eta kaino.

Zanbatako ugari
aurre ta atzetan,
sartutzen garelarik
rango ta batxetan.
Hobe dugu gelditu
nor bere etxeetan,
hau behar egitea
bestela kotxeetan!

Manifestazioa erresidentziaren alde (1976-II-29)

Bisietuko otsailaren azken egunarekin batera, manifestazioa egin genuen igande horretan. Oker ez banago, baimendutako edo, gutxienez, toleraturiko lehen manifestazioa zen. Nik 12 bertso ipini nizkion gertaerari. Orain haietatik hiru jasoko ditut:

Goierriko jendeak
ez daduka txantxik,
behar den haren eske
ezta ere zalantzik;
gauzak ez zeukan eta
mugitzeko antzik...
Sutan jarri ezean
ez da urtzen gantzik.

Gaixotegi bat dugu
eskatzen duguna,
orain dela bi urte
agindu zaiguna,
eta heldu denean
hasteko eguna,
salatu nahi genuke
hitza jan diguna.

Gure eskubideak
lehen ere askotan
aipatu izan ditut
nik nire bertsotan;
osasuna dugu bat
bat izatekotan;
zertarako besteak
hori ukatzekotan.

Lasarteren liburuari (1976)

Sail honetan 10 bertso dauzkat. Beti modutsuko porzentaleari eutsiz, hiru bat emango ditut:

Liburu bat jaso dut
idatzia urrez,
nafar batek egina
txit bertso samurrez;
aditzera norbaitek
eman zidan aurrez.
Ona zela zioen,
eta ez gezurrez.

Behar denean geldi
ta gero pausoa,
horrelaxe neurtzen du
liburu osoa;
euskera eder eta
letzen erosoia,
arimara sartzen da
horren hats gozoa.

Lehenengo Benta Berrin
entzun zintudan nik,
artean doi-doi nuen
arrazoi-zentzunik;
halere ez da galdu
orduko oihartzunik,
bestela nola izan
nire erantzunik.



“Ama Euskal-herriaz naiz naigabetua...”


Xalbadorri (1976-XI-7)

Xalbador hil zen gau berean ipinitako bertsoak dira. Zaldibiko taberna batean nengoen, eta Joxe Mari anaiak eman zidan berria. Edaten ari nintzena bertan utzi, etxera joan eta bertsoak jartzen hasi nintzen. Hamar bertso dira guztira. Hona hiru esanguratsuenak:

Zenbat poesi eder zenuen
bertsoarekin nahasi,
zure halako jardunetatik
ez dugu gutxi ikasi,
baina ordainez guk txistua jo,
zuk negar eginarazi;
utzi diguzun herentziarik
kasik ez genun merezi!

Zure bertsoak letu aski da
betiko gogoratzeko,
ordezkaririk utzi al duzu
soro hori jorratzeko?
Gugan ez fida, garia sarri
biltzen dugu loratzeko;
hargatik dira irin menosak
zurearekin oratzeko.

Ez dakit bertso hauek zuri zer
irudituko zaizkizun,
sinestu gero daramatela
teknika hainbat maitasun.
Muga zahar horrek dauka errua
ni joan ez banintzaizun...
Gorputzez urrun egonatik
arimaz hor nindaukazun.



Rufinoren emaztea.

1975, emakumearen urtea

Zortzi aleko sortatik bi aukeratu ditut:

Emakumea gizonezkoen
mailan behar dugu jarri,
nahiz eginkizun diferenteak
naturalezak ezarri,
mendeko ez du inoiz izendatu
baizik bere osagarri,
bakoitzak bere bereiztasunak
eskaintzeko elkarri.

Emakumea fabriketara,
garai batean nork esan?
Nahikoa zuen ikasiz gero
zerbait josten edo plantxan,
eta etxeko lanak egiten
esku onekoa izan,
horretaz kanpo haurrak egin ta
haiek zaintzea aski zan.

Orain ipinitako bertsoak

Harrezkeroztik arrapaladan
joan da mende laurdena,
benetakoa izan ote da
egin den aurrerapena?
Emakumeak kanpoan asko
eta etxean, berriz, dena.
Iraultza honek izanik gabe
ez al du hartu izena?

Baina, emakume bihotzekoa,
badut hainbat errezelo,
ez ote zaren gauza askotan
ibili oker edo lo,
gizonezkoen gaitz ugariri
gogoz jo diozu txalo;
aldatu orde z orain zeuretzat
hartu dituzu sinbolo.

Disimuluan (1976)

Beti izaten dira garaiak gauzak garbiegi esaterik ez dagoena. Frankismoan ere hitz erdika askotan jardun behar izaten genuen. Horixe gogoratzen dute hurrengo bi bertsoek:

Hara nola dabilen
bertso euskalduna,
gauza gogorrentzako
hizketa leuna,
metafora hutsa da
egiten duguna,
bidea apurtxo bat
zabaltzen diguna.

Gu itsutzen badabil
makina bat argi,
nahi den dena ez dago
esaterik garbi;
mintzatzen garelarik
keinu eta hitz erdi,
disimuluagatik
hoinbeste izerdi!



Zepai Saria 1977. Zepai zarraren emaztea kopa emateko zai.

Idiazabal eta Zepai Saria (1974-I-16)

Idiazabal txorätzen
naukazu begira,
zure jokabideak
ederrak hain dira,
jendea bultzatu nahi
iturri garbira,
ilunpetako lorak
eguzki argira,
Ai, zure antzekoak
gehiago balira!

Zepairi eskainiaz
laugarren omena,
kantuz egin diote
aurtengo nobena,
izan da txapelketa
ahal bezain onena,
bigarren mailako
bertsolariena;
zein etsenplu ederra
den herri horrena!

Zepai hartu zenuen
zuk semeordeko
ta maitasunik nola
ez zizun gordeko?,
baina suertatu zen
hilen elkarteko,
geroztik jaso da
omen bat urteko,
bertso hazirik ez zen
bestela erneko.

Aita Zavala eta Auspoa (1974)

Guztira zortzi bertso dira. Horietatik bost zeharraldatu ditugu hemen. Bertsoaren bati edo besteri ikutu berri-tzaileren bat eman diogun arren, funtsean ez dugu gauza handirik aldatu.

Buruz erabat argia dugu
eta du bihotz zabala,
bertsolaritza indartzearen
jarduten da eginahala,
ikusten baitu euskararentzat
behar-beharrezko dala.
Eta hor maisu paregabea
izan da Aita Zavala...
Berak sortua degun Auspoak
fruitua eman dezala.

Bertsoen bila miatu ditu
kale eta baserriak;
zenbat argitaratu dituen
zaharrak eta berriak!
Bai zuztarretik aurkitu ere
bertsolari jatorriak.
Agortzen ez den jarioa du
Zavalaren iturriak.
Inork ez daki oraindik zenbat
zor dion Euskal Herriak!

Hamaika lore atera duzu
sasi azpitik bistara:
lehenago ezer ez ziren franko
bertsolarien listara,
urrutiraino botatzen baitu
zure argiak islada.
Urte gutxian ia berrehun
liburuko erreskada...
Zu zaren arte biziko dira
bertsoa eta euskara.

Milaka asko izango ditu
aurkitu eta jasoak,
gure asabek garai haietan
ipinitako bertsoak...
Su bazterrean haiek kantatzen
aitona-amonatxoak,
edo sehaska astintzekoan
lo harrarazteko haurtxoak.
Zenbat histori utzi dizkigun
bertsoen bidez Auspoak!


Gure bi lagun maitagarriak
guri mintzatzera datoz,
inori ezer entzunda ez dut
behin ere hartu hainbat poz;
batak bertsoak bilduko ditu,
besteak zabaldu hauspoz.
Guk ez genuen ezagutuko
bikote hoberik askoz,
ta bidezko da goraipatzea
bertsoen altxorra bertsoz.

Euskera eta jakintza asteak (1974ko udazkena)

Hamabi bertso dira guztira. Pare bat gogoratuko ditugu.

Lehenaz gainera bere burua
ezinean ikusteak
gaixo daudenak ipintzen ditu
inoiz erabat tristeak;
beren indarrez ezin moldatu,
lagundu behar besteak.
Irudi horixe dira euskara
eta Jakintza Asteak.

Euskal Herrian toki askotan
aurten egin dira jaiak,
eta beste asko gelditu dira
bete gabe beren nahiak,
ez duelako berdin jokatzeko
alde denetan etsaiak,
elkarren berri ez dakitela
dabiltza zazpi anaiak.



Murietan lagun arteko bazkarian.



Euskaltegiko ikasleekin kurtso amaierako bazkarian.

Indar nuklearra (1975 urtarrila)

Guztira bederatzi bertso dira.

Deba aldetik dator berria
eta ez gaitu gu poztu;
etorkizuna behar diote
herri maite honi moztu.
Berriro bero ekinak dira
nahiz eta lehen zerbait hoztu.
Azkenik etxe nuklear hori
egiten dela apostu!

Guri ez zaigu sekula falta
malkorik eta negarrik,
ez daukagu-eta defenditzeko
legerik eta indarrik...
Uretan ezin arrainik sortu
eta lurrean belarrik,
kalte handiak dakarzkigula
ez dago esan beharrik.

Beranduegi izan baino lehen
egin dezagun irrintzi,
gu engainatzen ibili arren
ez dakit zenbat iritzi.
Proiektu horri behar zaizkio
betiko atea itxi,
gure baimenik ez dezatela
sekula ere iritsi.

Ikurriña legalizatu (1977ko urtarrila)

Bertso batekin gogoratuko dugu, nahiz eta jatorrizko paperean sei diren.

Beti gogoan izango dugu
San Sebastian bezpera;
balkoietatik zintzilik dela
debekatako bandera,
historirako beste egun bat
makala ez zaigu gera.
Borrokarako hezia denez
euskaldunon izakera,
gehiago ere lortuko dugu
tajuz saiatzen bagera.

"Pertur" (Artxiboko paperean ez da azaltzen datarik, baina, nik uste dudanez, 1976/1977an ipiniak dira). Hamabi bertso dira guztira.

Ezaguera dudanez geroz
beti gabiltza bihurri,
obligazioz beterik eta
eskubideetan urri.
Hamaika berri triste gugatik
munduak du irakurri,
norbait behar eta oraingo txanda
iritsi zaio Perturri.

Uztailaren hogeita hiruz
gertatua Behobian,
Euskal Herriak elkarrengandik
bereizten diren tokian.
Nonbait, lagunen ordezt, hark zeuzkan
itxaroten otso bi han,
askotan asko ibiltzen diren
baina apatxada hobian.

Eta, geroztik, askatutzeko
besterik ez da entzuten...
Dirudienez, ehiztariet
asmo ederra ez zuten;
ez du, benepein, edozein dela
ere ezer erantzuten...
Euskadi maite, beste errurik
aurkitu ote zizuten.

Zer sufrimendu izan dituzten
senide eta gurasoak;
alfer-alferrik eman dituzte
eman dituzten pausoak.
Bila dezaten lagundu ordezt
traba eta arazoak...
Besteik ezean "bere gorpua"
eske dabilta gaixoak.

Horra, nolako eskabidea
egiten duten azkenik;
hilda bederen ezin ikusi,
ez baitute beste penik.
Ez derizkiot oraindik ere
zibilizatu garenik;
esan, bestela, zein arrazoi den
hori uka lezakeenik.

Hamar jartzeko asmoa eta
ipini ditut dozena,
nonbait dexente betea neukan
nire bertso almazena.
Baina, hala ere, bukatu, ordea,
nahiz izan saio luzeena...
Ni naiz pakea maitatu eta
gerraz mintzatzen naizena.

Lanaren inguruan (1976-IX-21)

Gai nahasi samarra
heltzera noana,
ez dakit nola esan
nahi nukeen dana.
Badugu agindu bat
Jainkoak emana:
zeure izardiz bildu
egunero jana...
Geroztik deitzen zaio
behar edo lana.

Baina baziren batzuk
zerbait ikasiak,
lurrak beren menpean
ipintzen hasiak;
beste batzuek, berriz,
saldu-erosiak.
Horrela sortu ziren
lehen nagusiak,
horrela sortu ziren
gizarte klasiak.

Mundu honetan geroztik
dagoen iskanbila!
Prezio denak gora,
ehuneko mila.
Hozka jan beharrean
handiak umila,
hitzik ateratzean
gainetik makila,
ta gaizki dagoena
izorra dadila.

Emakumearen bularretakoari (1974)

Askok beteko luke
zure eginkizuna,
ezin hobea baita
tokatu zaizuna.
Ez soin eta beso;
ezer ez duzuna,
baina pitxi politak
zaintzen dituzuna.

Bi forma erdi borobil,
soka bat lepuan,
eta atzean bi zinta
lotuak kakuan.
Ederki bizi zara
neskatxen kolkuan.
Ai, zein egon litekeen
gaur zure lekuan!

Barrungo piztiari (1977)

Geure barruan somatuz gero
komeni ez den piztirik,
inoiz ez utzi hari egiten
berak nahi duen guztirik.
Gerta liteke damututzeko
ez izatea astirik,
eta geroztik bizi beharra
begiak malkoz bustirik.

Guraso izateko zain (1976)

Maitasuna da itsatsi,
loratu ere bai kasi,
hala du adierazi;
harremanezko misterioak
esplikatzen nola hasi?
Berak nau aita berezi
nire akats eta guzi;
ote nezakeen merezi?

Maitasunaren ardatza
gure bizitzaren hatsa
eta muina hortxe datza.
Ekintza batek sakrifizioz
ohoreak badakartza,
beltzen denean arratsa
loratuko da baratza...
Pozezko une garratza!

Betiko modu berdinez
lorea dago sor-grinez,
baratza berriz zor-minez.
Atseginaren atsekabeak
dakarkiguna ordainez,
natura-lege garbinez,
mundua samin gordinez
janzten da beti jardinez.



Rufino bere familiarekin, zilarrezko ezta egunean.

Ezkontza (1975-VII-23)

Nik ere, bada, agintzen dizut
zeuk agindu didazuna,
eta bihotzez eskaintzen dizut
betirako maitasuna:
zure senarra izanez bete
munduko eginkizuna,
ta promes horren seinaletzako
janzten dizut eraztuna.

Berak dakienari (1976)

Izoztearen eragin txarrak
erretzen duen arbola...
Badakizue mentu berria
txertatu behar zaiola;
mentu horixe izan zinen zu
erdi etsirik nengola...
Libertatea baina hobe da
maitasunaren kaiola.

Jaiotetxeari (1976)

Mende luzeetan galdua nonbait
duzu zure edadea,
zahartu eta bakarrik zaude
laguntzailerik gabea;
zure itxura aldatua da,
aldatu zure jabea:
gauza horrela jarri dutenak
denbora eta legea.

Ehundaka urtez izan zara zu
sendi askoren itzala;
urteek eta eguraldiak
beztu dizute azala.
Maitatzen zaitut urrun dagoen
semeak ama bezala...
Ni naizen arte zu ere Jaunak
zutik eduki zaitzala.

Jabetasunez berriz ez gara
itzuliko Olegira,
baina sarritan jartzen natzaio
beheko aldetik begira.
Bion arteko kontu isilak
goxoak izaten dira,
eta horrelaxe uxatzen dugu
elkarrenganako mira.

Txikiren gorpua Zarautza ekarri zutenean (1977ko urtarrila

Kazerestarra konbentziturik
euskal garrasi-hotsean.
Ondorioak hara, askotan,
kausa bati fin lotzean!
Beste edozein izan zitekeen,
zu egokitu zotzean,
haiek hainbeste pena utzita
euskaldunon bihotzean.
Baina ez al da askatasuna
kimutzen heriotzean?

Ez pentsa gero zure heriotzak
ezer eman ez duenik:
haize hartatik indarra hartzen
hasiak gara jadanik;
mezu horixe jaso genuen,
hil aurrean zeuk emanik;
zenbaitek ez du asko usteko
oraindik bizi zarenik...
Bizitzea da ez izatea
IZATEKO pizten lanik.

Nafarroa (1977ko uztaila)

“Hemendik” izengoitiarekin argitaratu nituen, eta Xal-bador Saria irabazi nuen bertso hauekin)

Nik erranen derautzut
bertsoz ahal dena;
hurbilago izan ez,
horretan dut pena;
haurride maiorazko
edo zaharrena...
Zure baita nahi du
norbaitek etena.

Zurekin eta guzi
gira gu Herria;
hasera-haseratik
Jaunak ezarria.
Orai asmatu nahiz
histori berria,
Españarat zaituzte
batzuk igorria.

Idaiak idai dire,
bakarra egia;
non hasten den badakit
lur honen hegia.
Ez dut maite delakotz
lurrealde handia,
baizik delakotz sortu
ninduen habia.


Nehoiz ere ez dugu
Nafarroa ahantzi,
nahiz erdal sotanaz
haren soina jantzi,
nahiz eta izengoiti
bikoitza erantsi:
zu ez zira España,
zu ez zira Frantzi.

Izan zira motin bat
biek partitua,
ezin ta merkeago
morroi zerbitua.
Gure Ama Euskara
zuga urritua...
Penaz baina nor dago
horrez harritua?

Baina oraindik ere
bada euskaldunik,
ez pentsa hortaraino
erori zaukunik.
Nonbait gaua ez bada
ez dago egunik...
Zuretzat argi bila
lo haturen dut nik.

Xalbador, handi zinen
handi guztietan;
hala utzi gintuzun
negar bizietan.
Ernemuina hasi da
zure hazietan;
gure kulpa da galtzen
bada sasietan.

Axular nongoa zen
ere badakizu.
Eskual letretan nork du
hark bezanbat pisu?
Heietaz nehork deus
galdatzen badizu,
erran izan zirela
Nafarroako maisu.



Lizarrako festetan semea eskutik duela.

Nire kantu liburua (1977ko azaroa)

Arratsetako nire
kontakatila,
nik bakarrikan dakit
zure baliua.
Lo harrarazteko droga
eta alibiua,
letraz eraikitako
nire kastilua.

Egunak utzitako
haserre izpiak,
zuk uxatzen dituzu
nigandik guztiak;
zuri begira hartzen nau
gau-lo amestiak.
Gutxi izaten dira
hain lagun eztiak.

Urte batzuetako
nire kantu lanak
zuk gordetzen dituzu
txintxo-txintxo, danak.
Ez baldin badu ere
izenik izanak,
ahal dudan neurrian
bihotzez emanak.

Zuri lotzen natzaizu
gauero-gauero;
kontseilari hoberik
nik ez dut espero,
zuk eusten baitidazu
fresko eta bero,
ta zuk esango duzu
ni nor nintzen, gero.

Horrela bizi gara
elkarren altzoan,
garenik ere nahiz
jakin ez auzoan.
Zu hazten saiatuko naiz
bizitza osoan,
geroko uztearren
mezu bat bertsoan.

Nire malkoek sarri
bazaituzte busti,
gaur ederrago zara
malko eta guzti;
joan deneko urte
batzuez honuzti
negarrak ez nau eta
inspiratu gutti.

Bizitzak badu berez
hamaika tortura;
horrek bultzatzen gaitu
sarritan kantura.
Nahiz hitzak zuzendu
guk basamortura,
barrena lasai behintzat
zerbaiten kontura.

Haur baten zain (1978ko martxoa)

Gure amets gozoa
burutu bezperan,
ez dakizu zein pozik
gu aurkitzen geran.
O, haurtxoa, ez dakit
zer izango zeran.
Neska ala mutila,
berdin dit aukeran...
Zatoz guztiok ongi
gozateko eran.

Ama kontentu dago,
aita ere alai,
ospakizun handia
noiz gertatuko zai.
Elkar ikusi arte
ezin egon lasai.
Inoiz izanagatik
guretzat sufrigai,
berdin gabeko pozen
iturri ere bai.

Ez gaituzu aurkituko
aberats, dirudun;
xentimo bat gorderik
ez daukagu inun.
Baina esango dizut
zer herentzi dugun:
izango duzu nahi
hainbeste maitasun,
eta haziko zaitugu
osoki euskaldun.

Baratza jantziko du
ama erditzeak;
udaberria dakar
puja berritzeak,
ta gure jarraipena
zutaz hornitzeak,
ez gaitu deusestako
zahar-horitzeak;
hortik salbatzen gaitu
zuga mamitzeak.



Benidormeko Faraon, emaztea eta bi semeekin.



Gerizpe Iraola pilotaria, Rufinoren semea, zaldibiko
pilota-eskolako arduradunekin.



Bianditz Iraola, Rufinoren semea, pilota egin eta josten.

Haur baten jabe (1978ko uztaila)

Bertso kantari natorkizu gaur
o, gure seme laztana;
zu zara gure amets eztia,
zu zara gure poz dana.
Zu zerbitzeko beti gerturik
daude aita eta ama...
Hauxe da lan bat segi eta segi
eta nekatzen ez dana.

Gisa horretan ikusirikan
geure baratza loratzen,
aita bat nola aspertuko da
bere semea goratzen?
Egun guztia pasatzen dugu
mimo eta adoratzen...
Ez dut urruti ibili behar
ez banaiz ere txoratzen!

Harrigarria pertsona batek
berekin daraman sena,
ume bat zenbat maita litekeen
seinale bat nabarmena.
Lotan galdurik badaukat ere
besteentzat entzumena,
danbor hotsa da niretzat haren
txintakorik txikiena.

Ni bezalatsu aurkituko da
beste edozein guraso,
publikatzea ez dela inor
atrebituko akaso,
baina isilik edukitzea
zaila da niretzat oso,
ez baitut inoiz bizitzagandik
horrenbeste grazi jaso.

Iruñeako zezenak

(1978-VII-11an jarriak, poliziak Germán Rodríguez hil eta hurrengo egunean)

Iruñako zezenak
zezen bihurriak,
kopeta beltzekoak
eta atze urriak.
Plazari azkar hartu
dizkiote neurriak...
Erakutsi dituzte
istilu gorriak!

Ganaduzale ona
dugu Martín Villa;
zezen trebeagorik
ez zitekeen bila.
Zaurituak ugari,
gainera bat hila...
Harrosko itzuli da
hemendik Madrila.

Arrazoiz mintzatzeak
ez du balioko,
eta ez dugu erraz
herririk igoko.
Hasi dira botatzen
gizon bat tiroko,
aurki horiek hil ahala
ez gara jaioko.

Errenterian ere
errespetosoak!
Gozoagoak dira
sarritan otsoak.
Izutu dira horko
agure eta atsoak...
Xenpelar bizi balitz
nolako bertsoak!

Oharra: Iruñean ibilitako polizia bera etorri zen Errenterira, eta han, eskaparateak hautsirik, barruko gauzak ostent ibili ziren.


Hamalau urteko ama (1978)

Neskatila batentzat
bertsozko solasa,
miresgarria baita
pasatuak pasa.
Hau mundu lotsagabe,
hau mundu eskasa:
errugabeak estu,
errudunak lasa...
Hamaikak pagatzen du
besteren jolasa.

Hamalau urterako
amaren gradura;
zeure gain hartu duzu
haur baten ardura.
Ez duzu, ez, jokatu
askoren modura,
bide eman diozu
sor dadin mundura.
Maltzurragoa da, bai,
egin zizun hura!



Idiazabalen bere emaztearekin, eta Sukia pilotariaren ama eta amonarekin.



Aitor Elkoro eta Joxe Garmendia Zaldibian, pilotaren festan.

Urte Berri goizez halamoduzko bati (1980)

Balantza eta zabu,
erdi enbalio,
ta gorputzari tente
eutsi ezin dio;
gaizki kargatu ta
zer erremedio.
Indartsu izateak
hor ez dik balio.

Edanaren edanez
ederki moldatu,
bide zelai guztiak
zaizkio maldatu;
burua arindu ta
gorputza baldartu,
urte berriak ez du
askorik aldatu.

Betazal bat itxi ta
bestea ireki,
mingaina ere ezin
barruan eduki;
diozu gaupasa egin
duzula ederki...
Zeu gustura bazaude
ni ezin erruki!

Alkandora kanpoan
sotanatarako;
praketa irekia,
baina lotarako,
ta lepoan jertsea
bufandatarako,
ez duk itxura txarra
traperotarako.

Mingaina lijeroa;
zuri, koloreak,
eta egiten ditu
pauso dotoreak!
Gaur ikusi beharko
dituzte bereak
kamio bazterreko
zapo ta bareak.

Euskal Herriari (1980ko urtarrila)

Euskal Herriaz gogoratzean
bururatzen diren gauzak!
Ongi pentsatzen jarri ezker
dira benetan garratzak:
gaur triste gaude, lehen kantatzen
genitun bere gorantzak,
izar gorriak itzali dira
eta piztu izar baltzak,
fruitu ederrez bete-beterik
behar zuena baratzak,
bere menpean harturik dauka
laharrak eta arantzak,
ale mingotsa ematen digu
etxe kantoiko mahatsak,
gure landa beretzat aina
sastraka eta sahatsak,
gure arima bezturik dauka
gorrotoaren ikatzak,
eta hik berriz izugarritzako
hondamendiak dakartzak,
ikusarazten baitiguk sarri
egun triste eta latzak...
lorik egiten ez digu uzten
datorrenaren zalantzak,
zikin guztiak garbitzen ditu
terrorearen erratzak,
eltzerik sutan ezin eduki
politikaren laratzak,
kanpora deika konpondu nahi

etxe barreneko saltsak;
geure burua zuritzen beti,
beti besteak narratsak,
inor gaiztotzat seinalatzeko
bi eskuetako hatzak,
arimaraino zulatzen gaitu
puskaketaren orratzak,
amorruez eta ezin egonez
urtutzen zaizkigu gantzak,
gu pitz gaitezen bizigarririk
ezin eskaini du gatzak,
goizak nekea eta deskantsurik
ez du ekartzen arratsak;
eta gero eta larriagoak
direla gure arnasak,
hartu ditugu ia hilean
dagoen haretxen antzak,
amildegira bidean hauek
ez ote azken balantzak;
gauza askotan pobreak gara,
ezertan ez aberatsak;
gonarik jantzi nahi ez eta
galduko ditugu galtzak,
lehen ez ezik aurrera ere
ez datoz egun errazak,
orain alferrik galdetzen dugu
bihotzik ba al duen haltzak;
errespetatu izan balira
eman ditugun urratsak,
beste oilar bat izango zuen
kantari euskal iraultzak;
dena nahi eta guztia galdu,
lagun gaitu ezerezak;
etortzez gero apurka-apurka
etortzen dira mudantzak,
orain gurdia nola eramán,
huts egin badu ardatzak.

Baina hala ere argi izpi bat
badu nire esperantzak,
ea arrastoan sartzen gaituen
erakundeen babesak.



Euskaltegiko areto nagusian, ikasleekin, urtebeteza ospatzen.



Rufino eta Blankiren familiak, zilarrezko ezta
eguncan, Aranzazun.

Zuri begira (1980ko apirila)

Arratsalde ilunak
gaua dakar gero,
hotz dagoen sehaska
jarriko da bero;
ama txoratzen eta
aita ere ero;
zutaz egin dut amets
ia egunero.

Ez dut palaziorik,
maitea, prestatu,
bai, ordea, osorik
zentozen kezkatu,
eta ez zenezake
besterik eskatu,
txarxegoa bederen
baduzu ostatu.

Hiru hankan zegoen
gure familia,
zu gabe ezin ginen
gu ibili ia:
biziaren legeak
zaitu bidalia.
Kukuekin batera,
hau erregalia!

Zeu kontsultatu gabe
mundura emana,
beraz zeurekin duzu
eskubide dana:
bai, tajuz hezi arte
ta lortu zer jana
ez dira geldituko
aita eta ama.


Aitaren maitasunak
baldintzarik ez du,
ordain gabe ematen
duela sinestu;
baina gerta gintezke
gu geu ere estu;
horrelakorik balitz
zuk ere babestu.

Maiatzaren bata (1980)

Lanik ezin aurkitu
edota paroan,
sabela betetzera
gero nora joan?
Baina seme-alabak zain
sukalde txokoan,
langileak hau zama
darama lepoan!

Lana denean gaizki
eta gabe akabò!
Horma eta ezpataren
tarteetan hor dago:
alde batera ez bada
bestera esklabo,
hobeto beharrian
gero eta okerrago.

Beraz derrigorrean
lanari lagata,
izurri izugarri hau
iritsi dala ta...
Langilea badago
horrela bajata,
tristeia izango da
Maiatzaren Bata.



Rufino pelota partiduan, epaile.

Konturatu gabe bertsoan (1980)

Begietatik distira eta
barrendik poz-arnas-estu,
mugimenduan gelditu gabe
kolpe eta kolpe bi esku;
biberoiari tira eta tira,
aitak albotik abestu...
zerua bera hobia denik
nola arraio sinestu!

Hitz bakoitzean irribarretan
lehertzen zaizu ezpaina;
horixe duzu nire bertsoen
esker on edo ordaina,
ez zaizulako oraindik gauza
hitz egiteko mingaina,
oso atzera zatozenikan
ez duzu ematen baina.

Hara, semetxo, lo zauzkadala
sarri nire besoetan,
nire burua galdua dabil
pentsamendu lausoetan:
gaur egon arren zu murgildua
zeure amets gozoetan,
zenbat estraputz egingo duzun
bizitzaren pausoetan!

Orain ordea zertan zapuztu
zure izate samurra?
Utzi dezagun alde batera
bihar-etziko beldurra;
arantzatsua berez da-eta
dugun atsegin apurra...
Geronen erruz zergatik egin
lehen motxa dena laburra?


Berriro ere kanpai joka dut
pentsamenduen ordua,
eta galdera hementxe daukat
barnean kiribildua:
aurrealdean ikusi eta
horrelako aingerua,
nola liteke gero gaiztotu
tamaina honetan mundua?

Emandakoa hartu beharra
izaten da herentzian,
halabeharrez mendafina maiz
bastuarekin nahasian,
seguru dena ez dela fina
guk ereindako hazian,
eta failoak zuzentzen saia
zaitez ahalegin guzian.

Estatutua (1980)

Gauza ederra, gauza bikaina,
dudarik gabe bakea,
geuk ere horixe nahi genuke,
lehenbailehen izatea.
Guri hartzea tokatzen zaigu
ta Madrili ematea,
betor aguro Estatutua
konpetentziaz betea.

Urtebete da Estatutua
Euskadin onartu zela,
harrez geroztik hor ari gara
eskale batzuk bezela;
tokatzen diren eskubideak
azkar heldu daitezela,
gauza onikan berriro ere
hemen ez dator bestela.



Rufino Zaragozan.

Etxeko gizon (1981)

Langabezian egon nintzen hilabete pare batez. Orduan jarriak dira bertso hauek, baina liburu honetarako apur bat moldatuta.

Gaurtik aurrera badut
titulu berria,
batere eskatu gabe
nigana etorria:
etxea gobernatzen
naukate jarria,
gastatuko dut, bada
zeinek ekarria.

Babarrun txuri edo
garbatzu apurra,
eta gozatutzeko
saiheski-hezurra;
asko gastatu gabe
bazkari samurra;
hori ere aurki ez,
nik daukat beldurra!

Nire hurrengo lana
enkarguak jaso,
ahal dudan merketik,
onenari paso!
Xuhurra naizela-ta
batzuek eraso;
kanpotik hitz egiten
erraza da oso.

Andrea badijoa
egun on esanda,
eguneko ordenak
goizetik emanda,
ongi bete ezean
gauean demanda,
tituluen bentaja
horixe izan da.

Zantzu ilunak

(Paperean ez dago datarik, baina 1982 aldera jarriak izango dira. Bakeari buruz dihardut)

Bakearen oihua
askoren ahoan...
Gauza bat esan eta
beste bat gogoan...
Arropa gorde eta
igeri ez joan,
hori ez da kabitzen
gure estiloan...
Bakea ote zaude
leku seguroan?

Hasterako hainbeste
oztopo ta traba,
bakoitzak bereari
ezin dio laga;
hautsia ote duen
bakeak aldaba
nire barrenak badu
kezka ta ikara.
Zer egin dugun noizbat
ohartuko gara!

Hurrengoan beharko (1982)

PSOEkoeak oraingo honetan
irabazi dute errez,
herriak hala nahi izan du
eta ez gaude negarrez,
baina gauza bat gertatzen zaigu
hemen guri zoritxarrez:
geure herrian agindutzeko
behar hainbeste indar ez.

Uste gabeko kontrarioak
gaitu guztiok bentzitu,
sozialistak ugaltu eta
abertzaleak gutxitu;
aurretik uste handiak baina
gero ez dugu luzitu,
aurten ez bada hurrengorako
behar dira konbentzitu.

Baina ez uste sozialisten
kontrarioa naizenik,
abertzaleak sozialista
izan behar du azkenik.
Bide hori garbi markatzen duna
bakarra ikusten dut nik;
zein den guztiok badakizue,
ez dut esango izenik.

Oharra: orduan ez nuen ipini izenik, baina harrezkero denbora asko pasatu da, eta, badaezpada ere, esan dezadan Euskadiko Ezkerrari buruz ari naizela.

Aitona hil (1982)

O!, semetxoak, berri tristea
heldu da gure etxera,
zuen aitona igaro dela
izatetikan ezera,
negar lehorren baratze handiko
deskantsuzko ohantzera,
sortu zuen lur harexek berak
estaliko du atzera,
erakutsian zein gutxi dagon
bizitik heriotzera.

Ene, maiteok, jaio ezkerok
guztiona da hiltzea,
ez du merezi handikerien
atzetikan ibiltzea,
askoz hobe da elkarrengana
umildadez hurbiltzea,
gutxien uste dugunean, zart!
heriotzaren iltzea...
Orduan zail da galdu ditugun
denbora haiek biltzea.

Argentinako lur zabal hartan
hartu zenuen bizia,
ta lurrarekin beti borrokan
gero bizitza guzia.
Gerra, gosea eta nekea
zer diren ongi ikasia,
lanaren lanez zeure gorputza
zaurituta ikusia,
hartu zaituen lur pittin hori
da ongi irabazia.

1984 urtea

(Dirudinez, hauteskundeak ziren orduan ere. Besteak beste, bi bertso hauek horixe adieratzen dute).

Gure politikoak
ez dira tontuak,
nork bere faboretan
atera kontuak,
zer-nola manejatzen
dituzten datuak!
Gutxien dunak ere
sobera botuak!

Aterako dituzte
marru eta hotsak,
Danborenea eta
Fraga buru-motzak,
uxatuko dituzte
Euskadiko hontzak,
baina nork hartuko du
hioen hitza ontzat?

Gogoeta egun seinalatuan (1984)

Gure ama xaharra
ohe baztarran
heriotzak lotu du
lotu du heriotzak
bere uztarran
kontu denak isilik
dauzka ezta
munduko gauza denen
gauza denen munduko
azken neurrian.

Arbola zaharrari
orbela dario
laster egingo digu
egingo digu laster
betiko adio,
bizitzaren legea
zer erremedio!
hil eta bizitzea
bizi eta hiltzea
bat dela medio.

Ezaren kalizetik
duzu gaur edaten
baina ezeztu zara
zara ezeztu baina
izana ematen,
lehena jarri duzu
oraina izaten
ta gero arte baizik
ta gero arte baizik
ez duzu esaten.

Munduan aldakorra
delako guzia,
eza eta baiaren
baia eta ezaren
arteko auzia,
erantzuna guregan
daukazu utzia
eta piztuko ahal da
eta ahal da piztuko
zuk utzi zuzia.

Jaiotzen den guztiak
heriotza du zor
baina izate dena
baina izate dena
ez da amaitzen hor,
bakoitzak behar dugu
geure geroa sor
ezaren sareetan
ezaren sareetan
ez gaitzezen eror.

Alea deseginez
landarea sortzen
den eran gizonak du
den eran gizonak du
izatea lortzen,
denbora eta lurrak
nahiz duten ehorzten
hiltzeak ez du berez
berez ez du hiltzeak
bizia agortzen.

Gizona zer den beti
Izan dut ardura,
zergatik eta nola
nola eta zergatik
heldu den mundura,
nire uste hauxe da
biziaren ura:
heriotza ondotik
heriotza ondotik
geratzen den hura.

Denboraren eskutik
izadiak murgil,
egun batean jaio
jaio egun batean
eta bestean hil
nire artean hauxe
pentsatuaz nagil:
gauza bat bera dela
dela gauza bat bera
urrun eta hurbil.

Esperientzia asko
elkarri lotuta
gure bizitza dago
dago gure bizitza
hortxe kokatuta,
historian une bat
zaigu tokatu-ta
IZANGO gara hori
gara IZANGO hori
ongi moldatuta.



Argazkiko horiek anai-arrebak dira, Rufinoren osaba Juanixio eta ama Geneveva. Osaba ia 100 urterekin hil zen.

Zorionak denoi

Xenpelarren omenez
zegoen saria
gogotik saiatua
da bertsolaria
agi denean talde
oso ugaria
batek behar txapeldun
hau da komeria!

Nik ere banituen
nire esperantzak
baina erabakia
ematen dut ontzat
eskerra baizik ez dut
juraduantzat
egizue lo lasai
niregatik behintzat.

Parte hartuagatik
sari hori nahita
konformatu beharko
ez naiz izan gai-ta
jarri berriro ere
geratzen naiz zai-ta
inportanteena parte
hartutzea baita.

Bertsoak ez dit eman
atsekabe gutxi,
hala ere ordea
nik ezin dut utzi
berak zaplaztan jo ta
nik letraz igurtzi
maitasuna hobeto
nola erakutsi?

Hau da sententzia ta
hau da azken hitza
txaloka behar ditut
atzaparrak pitza
gora Mendizabal ta
gora Amuriza
berdin gora gure Esnal
ta bertsolaritza.

Gure nortasuna

(1983-6-16an, Basarrik *Nire bordatxotik* sailean publikatuak)

Harkaitz artetik.datorren ura
izanik bertsolaritza,
ba al dakigu berari buruz
nola hasi, nola mintza?
Oreatuan sarri galtzen den
ostarteko izar-printza,
sail hontan bertan irakurri dut
"behar du zenbait baldintza",
nireak nola argitaratu
hori horrela balitza?

Bertsorik gabe galdua dago
herri honen euskal sena,
bertsoa eta euskaragatik
gorde du bere izena.
Komeni zaigu gogoratzea
egia hau ahal den maizena,
borondatea duna baztertu
ez derizkiot zuzena,
arituaren poderioan
betetzen da almazena.

Iturriaren bizi-jario
ez al da gure bertsoa?
ta sehaskari eragin alde
kantari amonatxoa.
Haurrak begitik jaten du haren
ezpainetako gozoa:
bertsoa dugu seme kuttuna
ta euskera gurasoa,
horregatik da bertsolaria
gaur Euskal Herri osoa.

Idatz-lanetan ez dugu izan
Ciceron edo Platonik,
baina ez zaigu sekula ere
falta bertsolari onik.
Eta ez uste bat-batekoa
hausteko ezer dagonik,
inon badago iturri horren
berri ez dakin gizonik,
esplikatzeko eragozpenik
ez nuke, ez, izango nik.

Nire liburua

Arratsetako nire
kontakatilua,
nik beste inork ez daki
zure baliua.
Lotarako pastila
eta alibiua,
letraz eraikitako
ene kastilua!
Nire nortasun-gida,
nire zigilua.

Egunak utzitako
haserre izpiak,
bizitzak sortutako
txar edo gaizkiak
zuk uxatzen dituzu
nigandik guztiak.
Zure kontu potxolo
eta abestiak!...
Gutxi izaten dira
hain lagun eztiak.

Urte batzuetako
nire idazlanak
zuk gordetzen dituzu
txintxo, hortxe, danak:
ilusio bizitan
egindako planak,
plazaratutakoak
eta ez diranak,
zeinezkorikan gabe
bihotzez emanak.

Zuri lotzen natzaizu
gauero-gauero,
kontseilari hoberik
ez baitut espero,
eusten didazulako
fresko eta bero;
erantzuna, berriz, prest
galdetu ezkeru,
ta zuk esango duzu
ni nor nintzen, gero.

Inoiz nire malkoek
bazaituzte busti,
gaur ederrago zara
mantxa eta guzti,
joan deneko urte
batzuez honuzti
nigarrak ez nau eta
inspiratu gutti.
Zuk bihurtu didazu
malkoa eguzki!

Ustez ereinagatik
hazia ortuan,
beti ez da izaten
alea portuan;
barrena, sarri asko,
erdi-agortuan;
inoiz oihuka ibili
naiz basamortuan,
belarri fina alferrik
da bihotz gortuan.

Nahiz eta zuk ez gorde
egia apurrik,
niretzako ez dago
zuregan gezurrik,
eta zuk ez daukazu
onenaren zorrik,
inork eman ez arren
zuregatik hurrik,
ez daukazu kanpoko
famaren beharrik.

Horrela bizi gara
elkarren altzoan,
nahiz ta garenik ere
ez jakin auzoan.
Zu hazten ariko naiz
pausoan-pausoan,
batzuetan prosan da
bestetan bertsoan.
Zu letuz hil nahi nuke
gozamen osoan.



Lazkao Txiki sariko lagunak, Ordizin.

Lazkao txikirekin zita

Egunsentiko txorien kantek
damaiguten atsegina!
Zu jaiotzean gogotiago
ari omen zen pinpina:
urre gorrizko kofre txikia,
molde bereziz egina,
frasko txikian gordetzen baita,
beti, esentzia fina.
Zer miraria Lazkao Txikiz
konturatuko bagina!

Ziri meheko bor-bor bizia,
ibai sakonaren ardatz,
behin hartutako erretenean
arrastua eramanez,
nahiz eta sarri zure barnean
egosten zenak mindu latz.
Izpiritua indartzen dugu
ur horretatik edanez;
gure atzetik alferrik dabiltz
Luzifer eta Satanas.

Bertso batean esan zenuen
mundua nola zuzendu:
*"Ez daukanari lagundu eta
inori ezer ez kendu"*
Baina oraindik lapurretatik
jende gehiegik jaten du!
Biluts daudenak jantzi ditzagun,
gose direnak mantendu.
Lege beharrik ez geneukake
hori egingo bagendu.

Bazenekien ongi uztartzen
sentimentu eta bromak,
nahiz ta askotan gehiegi hedatu
guk zure berritsu sonak.
Horretarako eskubiderik
ez duelako gizonak,
bere burua hildako bati
zeinen arrazoi sakonak!:
*"Bere garaian kenduko zion
leenago eman zionak"*

Azkar usteko zenbat elkartzen
ote zen zure onduan?,
gozatu eta goza arazten
aparta zinen orduan;
adiskide bat hurbildu eta,
esaten dudan moduan,
galdetu zizun: "hamaika alperrek
jaten dik gure munduan".
Zuk erantzuna: "*hi bakarrikan
hintzela uste al huan?*".

Behin honez gero dena esanda
lasaiago nengoke ni:
sarri zenuen, zauria non, zuk
behatza hantxe ipini.
Obserbatzaile zorrotza eta
paregabeko bi begi,
egun batean bihurtu zinen
Elizaren epaitegi.
Hala zenion: "*Pobreak jaso
eta aberatsei segi*".

Donostiako omenaldian
egin zenigun agurra;
azken argazki hura ahaztea
ez da izango samurra.
Kantu hotsetik isilunera
hain dago tarte laburra!
Uxaezina, inolaz ere,
hil beharraren makurra.
Ordez kagaitza ez ote zaren
badaukat nahiko beldurra!

Orain ez duzu bertsoarik eta
orain ez duzu txisterik;
lortu duzuna: herri osoa
jarraraztea tristerik.
Askoren ustez nola txikiak
gora ez daukan iristerik,
erabakia dotoreago
emanda ez dago uzterik:
*"Egiz aundia dan arek ez du
bein ere aundi usterik"*

Bakardadeko arantzapean
burututako jarduna,
balienteak ere aguro
menderatzen dituzuna,
mututasuna gailentzen baita
berez izanik hiztuna.
Hargatik edo, Lazkao Txiki,
hau da nik zuri entzuna:
erritarako badarik ere
atsegina da laguna.

Mundu honetan ezin liteke
gauza handirik espero:
jaiotzen gara, sufritu eta
derrigor hil behar gero.
Gorroto eta inbiriaren
mendekua egunero.
Halabeharrez, zu egin zinen
zeruetako bezero.
O Joxe Migel, gaizki al zaude
ondo pentsatu ezkeror?

Oharra: Bertso hauekin aipamen berezia izan nuen "II. Lazkao Txiki Sarian".

Ume elbarri baten argazkia

Izotz osteko eguzki printzek
paraturik aitzinean,
agure zahar bat ikusi nuen
bultzaka ahaleginean
haur-sila bati, eta barnean
neskatxa bat ezinean,
baina ahal zuen heinean
saiatzen zen ekinean.
Eszena hura deskribatzeko
ez dut hitzik mingainean
edo, bestela: eguzkiaren
eklipsea larrainean.

Nago, gaisoa!, guztiz osoa
ez ote dugun burutik,
adin horretan komeni baino
gehiago du aingerutik...
Ipurdia ezin bost zentimetro
jaiki silaren zorutik,
lagundu arren eskutik
doi-doi jarriko da txutik.
Esakun zaharra sekula ez zait
atera horren barrutik:
"Jaiotze beste kulparik ez ta
pagatu behar larrutik!".

Begiratua zirrarratsua,
mugimenduan geldoa;
nekez mintzo da, sinuka edo
motel astinduz ahoa.
Gorputz baldanak sarri ohi duen
inuzentzian gogoia.
Osabaren anparoa:
babesa eta beroa.
Bizi izateko, bat baldin bada,
horra arrazoi sendoa!,
nahiz egunero hurbil ikusi
elkarren betiko loa.

Osaba hori mutilzaharra da,
jakingo duzu akaso;
baina gaur egun, zuri eskerrak,
bilakatu da guraso...
Azken orduan amona ere
ez al zuen berak jaso?
Bihotz onekoa oso,
igartzen zaio aidoso...
Hanka bietan herrena dauka,
ibiltzen da txit nekoso,
baina iloba gozatzearren
eman du hamaika pauso!

Hexur eta axal, zain denak bistan,
buruari ezin eutsi.
Zeinek ez ditu zure aurrean
malko lehorrak irentsi?
Horrekin dena esana dago,
gehiago zertan erantsi?
Zenbat pena, zenbat antsi!
Bizitzak zu beltzez jantzi
baina ematen ote diozu
guk uste aina garrantzi?
Haurtxo maitea, ziur ez dakit
erruki ala miretsi.

Heldu zitzaion lehenengo aldiz
Jauna hartzeko eguna;
orduan ere jantzi zuriak
azpian zeukan iluna,
betiko baita bizitzarekin
eginda daukan ituna.
Hain da gurutze astuna
inoiz tokatzen zaiguna!
"Zergatik ote?" galde eta galde
askotan nago jarduna...
Erantzunikan ez dagoela,
hau da nire erantzuna.

Zeruak hala nahiko zuela,
hori al da arrazoa?
Ezpata horrek bi aho ditu
eta bietan herdoia.
Baina erabat korrientea,
ez da batere ez-ohia:
gure betiko sermoia;
zuk arantzadun koroia:
bazentozela eta bizitzak
irekitzean teloa,
eskaini zigun zutitzerako
okertutako zentoi.

Batak zerua aipatuko du
ta besteak zientzia,
baina guri zer aldatu ezik
jaso dugun herentzia?
Galbario hau eramateko
behar den pazientzia!
Hauxe da penitentzia
albora ezin utzia!
Nahi izan arren, guk zure alde
nola ezarri auzia,
nahi ta ezina bada guregan
daukagun ahalmen guzia?

Baina keinu bat, irri samur bat
izan liteke laguntza.
Osaba zaharrak erabil zaitzan
honera eta haruntza,
zure silari irri horrekin
egin nahi diogu bultza.
Desio onaren kutxa
oraindik ez dago hutsa:
halabeharrak azaldu duen
zureganako zaputza;
uxa dezagun, xint bat bederen,
baldin bageneza uxa.

Oharra: Bertso hauek, 1993an, II. Lazkao Txiki Saria irabazi zuten.

Ala ona da, edo Pizinan ito

ALA ona da, on guztiz ona,
bere izan eta izen;
baina gizonok onerako bat
eta txarrerako lau sen.
Pizina baten sabel barnean
uraseturik ni hemen,
erortzen utzi ondoren
inor mugitu baino lehen,
ez dut lagun bat bederen!
Ez nuen uste horren urruti
zeudenik Meka eta Belen...
Ez dago etsai zertan izanik
desberdinak izan arren!

Lau zalaparta, hiru herio,
bi ezin, eta barrena.
Gure postura ohizkoenean,
ahozpez jarri naiz aurrena;
begiak zuri ditudalarik,
gora begira hurrena;
amaren zotin ozena,
non nagoen dioena.
Hauxe da hauxe eszena:
fariseoek ez bezala hauek
bistan egin dute dena;
samaritarrik ere ez, ordea,
horrek ematen du pena!

Jesus guretzat ez da Jainkoa,
alabaina bai Profeta...
Esan dezadan Berarengandik
ikasia dut hau eta:
*"alferrik dira obra gabeko
damua eta hizketa"*.
Maitasunari krisketa,
grña gaizto eta seta,
jende askoren apeta...
Ez al da alferrik ur bedeinkatuz
igurtzitzea kopeta,
bihotz-hondoa baldin badago
gorroto lainoz beteta?

Zein mingarriak diren zenbaiten
bizitzako baloreak!
Eskala horretan tokirik ez du,
antza denez, koloreak,
eta arima beltzen habia
inoiz zuri dotoreak:
usteldutako loreak...
Gala du moral dobleak.
Non dira froga hobeak?
Oihu bipilak ditu zuentzat
gaur ere Mundu Pobreak:
*"odoletik ez, baizik odolez
eraikitako nobleak!"*

Erantzun behar izan diogu
hamaika arazo zaili:
hemendik joan, oihanak soildu
eta bazterrak kiskali;
guk ere zerbait beharko egin
lurrak ez gintzan estali!
Goseak ezin ibili,
sufritzen hainbat famili,
protestak balaz itzali.
Europak beti ez al du Afrika
bere gogara erabili?
Nahi duen dena ebatsi eta
gero limosna bidali!


Geure lurretik, runborik gabe,
aldendu norabaitera;
gure yatea ez da yatea,
baizik zurezko patera;
gure artetik inor ez dator
lapurretatik jatera,
baizik lana egitera,
modu bat edo bestera.
Sartzen zarete tartera
gureganako erruki barik
disgustuak ematera:
gu uretara jausarazi edo
geu jaustean ez atera...

Aita hor dabil komunak eta
zurien kakak garbitzen;
Ez du Europan magrebi batek
behar hoberik aurkitzen.
Gero alaba ikustekotan
salbajismo honetan hiltzen,
ez da alferrik jaikitzen
lanerako irrikitzen...
Ez zait ondo iruditzen.
Amsterdameko zakurrek aina
ez nuen, ba, exijitzen!:
zaindariekin ikusten ditut
Water Poolean ibiltzen.

Piszina honen erraietatik
goraka nire bor-borra;
ez dut izan nahi bengatiboa,
ez dut izan nahi gogorra,
mundu honetan nahikoa baitu
bakoitzak bere zigorra:
batetik estu zilborra,
bestetik lo ameskorra,
nire iritzia horra...
amets-gaiztoak zutituko du
urkamendiko enborra
eta gauero, eta tantaka,
ordainaraziko zorra.

Mintzo den hori ni ote naizen
badukezue zalantza;
nexka txikiak egiteko hau
gogoeta sakon antza.
Baina ezjakin-soinik gabea
denez arimaren hatsa,
jakindurian gorantza
igo da nire balantza,
izpirutuzko lorratza...
Ez dut esango behar dugunik
guk munduaren ardatza,
arras ahazteak ekar lezake,
ordea, gatazka latza.

Oharra: 1994ko Lazkao Txiki Bertsoaper lehiaketa irabazitako bertsoak.



Lazkao Txiki saria 5 aldiz irabazi du. Horietako batean, bertsoak kantatzen ari da.

Guardasola

Lo-ezinaren amets esnaiak
eskaini zidalako bart,
hara, andrea, nik gaur zuretzat
gogoeta hauxe dakart:
lehenago biok bakarra ginen,
orain elkarrengandik at.
Ene maitea, aldatu gara,
aldatu gara ta zenbat!...
Gaur bi guardasol gutxi ditugu,
lehen gehiegi genuen bat.

Guri begira hamaika jende
egoten zen inbiritan.
Non geunden ere ez genekila
ibili izan ginen bitan:
bustitzen zenik konturatzeke,
guardasol gabe euritan;
edo elkarren izardi tantak
xurgatuaz eguzkitan...
Lehen begikoa genuen elkar
eta gaur elkar begitan!

Batzen gintuen kordel mardula
bilakatu zaigu pita.
Gaur aterpetik erten ez arren
sarri gabiltza bustita.
Hitz potxoloak ahaztu edo
bihurtu dira errita.
Orduan, beti: "zuri zorretan";
orain: "niri ezin kita"...
Itukinaren habia da gaur
lehengo maitasun garita.

Aste osoan ilusiozko
bakardadean lanean:
ni Beasaingo CAFen eta zu
Fonda Martínezenean.
Ostegunetik ostegunera
Donostiara trenean;
eta igotzen laguntzen nizun
nahiz egon sasoi onean.
Borondaterik onena beti
beharrik ez dagonean!

Barandiaranen errefreskua
eta Izarren pastela,
plaiara ere joan ohi ginen
edo zinera bestela,
ta Igeldora sarritan hega
bi usakumek bezela,
gure bihotzen taupada-hotsa
itsasoan galtzen zela...
Protagonistak zahartu ahala
aldatzen joan da nobela!

Putzutxulo bat ikusi orduko
besotik heldu elkarri:
"Kontuz, maitea, hor sartu gabe,
nire ondora etorri".
Edota inoiz semaforoa
baldin bazegoen gorri:
"Kontuz, potxola, orain ez pasa;
begira, mesedez, horri".
Deskuidoz hanka zapalduz gero
barkazio eske, larri.

Eta gaur, berriz, putzuzuloan
sartuagatik zangoa,
elkarrengandik jasoko dugu
gozorik gabeko soa,
laguntzearren hurbildu orde
urrutiratu besoa,
semaforoa nahiz gorri egon:
"Segi aguro, atsoa".
Hortik aurrera jakina dago,
haserre egun osoa.

Guardasolaren irudi hori
irudi esanguratsua...!
Ez al da oso inportantea
eman nahi duen mezua?
Esan dezadan, nahiz askok hartu
halako sermoi-kutsua:
bizitza osoan da zaindu behar
amodioaren sua,
zahartzaroan ahula delako
eta gaztetan itsua.

**Oharra: 1996ko Lazkao Txiki Bertsopaper -lehiaketa irabazita-
ko bertsoak.**

Nahi eta ezin

Zoriontsu izan nahi dut,
hori denon leloa!
Xede horrekin hasten gara
antolatzen geroa,
baina etsai izaten da
sarri geure "ego"a,
eta horrela zabaltzen du
zorigaitzak hegoa.

Narzisoren ipuin hartan
du honek oinarria,
seriotxo hartu zuen
egin ordeaz irria:
Ni naiz, ni neu, ni naiz dena,
ni naiz jainko berria...
Pertsonaren antz gabeko
jainko urrikalgarria!

Egoismoak sortu zuen
lehenengo fikzioa,
eta denok geure egin
dugun debozioa,
ondo ulertzen ez delako
bizitzaren zioa,
gero eta bipilago
dator frustrazioa.

Neroni naiz munduaren
aintzin eta ostea,
neronentzat nahi nituzke
diru eta ospea;
berdin dio legez lortu,
berdin dio ostea,
nire eltzetik at ez dut nahi
ezertxo egostea

Zenbat dudan, huraxe naiz
nortasun agiria,
gutizia lege eta
bertute inbiria,
baina gure gosearen
zakua hain da handia,
ehun bizitza izan arren
ezin bete erdia!

Hitza garbi egingo dut
arriskuak arrisku:
Jainko zaharra hil zen eta,
berririk ez da piztu;
nik ez dakit horregatik
poztu edota histu,
nahi bai baina ezin baitut
gizonagan sinistu.

Bere errautsen ernemuina
izan genuen Fenix,
hurkoaren heriotza
gure bizia, berriz,
eta haren gorpuzkinak
estali lur eta harriz,
geuretzako pedestala
haien gainean jarritz.

Pedestalak kentzen dio
gizakiari loa,
ametsa ere hori dela
daukat errezeloa;
baina ez dakit ez ote den
urkamendira igoa,
edo urrezko euskarrian
lurrezko idoloa.

Gizona da, nonahi ere,
txit jenero bitxia:
borrero eta biktima,
algara eta antsia;
betidanik nahastu ditu
dotrina eta praxia,
krisiaren balorea
ta baloreen krisia.

Hil zen eta ez da bizi
solidaritatea,
nornahirentzat dago zaila
etorkizun betea;
eta ixten badiogu
hurkoari atea,
baliteke zoriontsu
inor ez izatea.

**Oharrak: 1998ko Lazkao Txiki Bertsopaper-lehiaketa
irabazitako bertsoak.**

Doinua: zortziko zaharra.

San Franziskoren liburutik

San Ignaziok liburu on bat
hautatu zuen gidari,
neronek ere uste izan dut
ongi dagoela hori,
baina begira diezaiozun
liburu zabalenari,
Asisko santu aita Franziskok
gomendatu zigunari,
munduko obra guztiak bere
baitan dauzkan naturari.

Begiei bista joan orduko
han dago zero ortzea,
gauza bera da hor sartu edo
infinitez galtzea;
zutabe eta hormarik gabe
eraikitako etxea,
ez da erraza dekoratzeko
argi gehiago jartzea,
orain falta da arkitektua
nor izan den argitzea.

Milaka miloi galaxia eta
milaka biloi eguzki,
astro handiez beterik dago
unibertsoa gain-azpi;
argi urtetan neurtu behar
horko distantziak, noski;
zenbaki hauek buruan sartzen
ibili behar dut gaizki,
baina izatea posible al da
NORBAITEK ez balekizki?

Berez sortua ez ote den da
jende askoren juzkua,
Franziskok, berriz, hor ikusten du
Jaungoikoaren eskua;
gizona gizon denez geroztik
daukagun ezbai estua;
nire iritziz, nornahik du oker
egoteko arriskua,
hala ere gaur hartu nahi nuke
bidelagun Asiskua.

Liluraturik behatzen zuen
lehorretik itsasoa,
eta biziki maite zituen
mendia eta basoa;
egia esan, onesten zuen
natura oso-oso:
azeri, putre, azkonar, miru
edo anaia otsoa...
Hark jareginda hegaldatu zen
mundura bake usoa.

Ez du errurik uso gaixoa
odoletan bada berriz,
edo norbaitek utzi badio
itotzen gose-egarriz.
Nahiz ez nukeen nahi santua urtu
samurkeria gehiegiz,
esaten dudan guzti-guztia
esaten dut fede handiz:
dinosauruak ez ziren hilko
hura hemen izan balitz.

Guzti-guztia goresten zuen,
ibili gabe erdizka,
harentzat handi baitzen inurri
edo edozein txorixka.
Maite zituen kirkilen doinu
eta okilen kurriska...
Banatzen zien limosna gisa
bildutako ogi pixka.
Dударik gabe, San Franzisko zen
lehenengo ekologista.

Pertsona ere maitatzen zuen
animaliak ez ezik,
beste agindu bat ezarri zion:
"bizi behar duzu pozik;
ta zoriona ez dago inon,
pobreen ondoan baizik".
Sufrimendua permititzeko
ez zuen izan bihotzik!
Hark bezain ongi nork ulertu du
Berri on eta Jesusik!

Gaixoak ziren haren ardura
eta haren interesa,
bizi izan zen haientzat nondik
inguratuko babes, a,
nahiz eta hori gertatu ohi den
preziko bezain nekeza.
Bere burua besteen ondoan
jotzen zuen ezereza,
esango nuke huraxe zela
orduko Ama Teresa.

Jesusen gisan probatu zuen
inkisizio kaliza,
kontra baitzeuzkan handi-mandiak,
ta kontra zeukan Eliza.
Aita Santuak onartu nahi ez
Fraile Txikien bizitza,
edo ezarri nahi zizkiela
ez dakit zenbat baldintza...
Beti izan da diktadorea
Erromako Jaurlaritza.

Baina Franziskok ez zuen etsi
Jaungoikoari eskerrak!
Anaiarteak gozaten zuen
eta minberatu gerrak,
jasankorrago egin nahi eta
munduaren lau bazterrak,
bere bidean tinko iraun zuen
ikusi arren senperrak.
Kontatu ahala izango dira
hain adibide ederrak!

Oharra: 1999ko Lazkao Txiki Bertsopaper-lehiaketan 2. saria irabazitako bertsoak.

Nañarri

Harri-izarra, harkaitz landare,
gure Nañarri denen errege:
zure distirek gure etxea
jotzen dute parez pare (bis).
Artzain etxolak goi ta behe,
eta hainbat mendizale,
zer ginateke zu gabe!
Errezatuko diot Jaunari
hiru-lau bat "Aita gure",
nork ikusia izan dezazun
gu guztiok hilda ere. (bis)

Erditzen duzu egunsentia,
erditzen duzu goiz eguzkia,
eta haurlaguna laga ohi duzu
goizeko ihintzez bustia .(bis).
Zein izaera ezta!
Horra zure argazkia,
hala ere ez da guztia;
zure gainetik ikus daiteke
Goierri nahiz Donostia;
ederra zara eta berebat
ederren behatokia .(bis).

Hilen argia ez dago hilda,
jarri diozu gauari ginda
ilargiaren urrezko islez
apaingarria eginda; (bis)
duzu hainbat gauza fin ta,
dotoreago ezin da;
baldin bada, hori zein da?
Jentilak ere bazirela hor
nola nagoen jakinda,
zizelatua zara inondik
haiek Lurrari eraginda .(bis)

Harkaitzik ez du jotzen satorrak,
baina baditu zure zilborrak
zulo zabalak, babeslekuak
edota harpe lehorrak; (bis)
eraso arren txingorrek,
neguko egun gogorrek
dira aski jasankorrek,
eta ugari uda garaian
Nañarrik dauzkan altxorrek...
Murumendiko Damak ere hor
pasatzen ditu oporrek. (bis).


Behera hodeia, gora lainoa:
orain itsaso, zure albo;
icerbergaren puntaren gisa
luzatzen duzu lepoa; (bis)
untzia ere hor doa,
hauskorra bezain sendoa;
ez dezala jo hondoa.
Hori guztia ikusi eta
nola ez ase gogo,
eskumenean baldin badaukat
Picassoren koadroa? (bis)

Labana zorrotz eskuin arista,
ezkerrekoa, berriz, txirrista;
zure gainean hegaldatu da
emozioen kuliska: (bis)
hainbeste parapentista,
beltz, hori eta gorrizta,
aireko ekilibrista,
eta behetik gora betea
eskalatzaileen pista...
Batek bizia gal lezake hor,
baina baita ere konkista. (bis)

Udan eguzki, neguan euri;
batean berde, bestean zuri;
jantzi guztiak ongi etortzen
zaizkizu, Nañarri, zuri. (bis)
Zenbat lan hainbat bururi:
zu hartu nahian, urduri
dabil pintore ugari!
Irudiaren eredu gisa
sortu zinela dirudi,
forma ematen diezulako
hainbeste sentimenduri. (bis)

Ibiliaren mende honetan,
hegan egiten duzu benetan,
azaltzen zara fotografoen
eskarate denetan (bis),
egutegi onenetan,
Gabonetako christmetan
eta kalalogoetan;
azaltzen zara ate sarreran
edo barruko hormetan,
dekorazio finenen pare
jatetxe dotoreenetan. (bis)

Oharra: 2000ko Lazkao Txiki Bertsopaper-lehiaketan 2. saria irabazitako bertsoak.



Nañarri Rufinoren etxetik ikusita.

Kobazulotik garrasi

Nondik natorren ez dakidala,
noraezaren ertzean;
heldulekutzat amildegia
aurrean eta atzean.
Oinak lurrari josiak, baina
arima, apika, haizean.
Zatiketa bihotzean
pentsamenduak jotzean. (bis)
Goizik inondik ez da ageri,
bizi gara arratsean,
eta arrazoiak ez du etzan nahi
fedearen ohantzean. (bis)

Nik gogoeta egin izan dut
zeruaz eta munduaz
(nire buruko entendimentu
guzti-guztia bilduaz):
Jainkoa edo Delako Horrek
egin duen absurduaz,
odol, izerdi ta suaz,
gizonaren helburuaz. (bis)
Esaten dena, dena denetik
aparte mila leguaz...
Oraindik gabiltz kobazuloko
hormatzarrak laztanduaz. (bis)

Kobazuloan ez da falta ohi
gerra eta aziorik;
jan nahi duenak derrigorra du,
nahiz ez izan biziorik.
Indarra lege, indarra juez;
ez dago barkaziorik...
Han ez dago juiziorik,
ez bada negoziarik. (bis)
Baina ez dut nahi argibiderik
eta esplikaziorik.
Jakin eta zer aurreratzen dut,
ez badut soluziorik? (bis)

"Beheko leizean sufritu eta
goikoan paradisua".
Baldin bada ere iruditzen zait
Jaungoiko kapritxosua:
hutsaren baitan, sarritan, galdu
eternitate osua.
Amatatzen ez den sua
ez da izango gozua... (bis)
Berdina ez ote izu-oihua
eta beldur-errezua?
Zeinek argitu gizona ala
Jainkoa den arazua? (bis)

Zure baimenik gabe ez omen
ilerik ere ibiltzen,
beldurtu ginen sermoilariei
hainbeste aldiz aditzen.
Gaur badakigu Zure Eskua
ez dela beti higitzen,
Hasia zara gelditzen,
lanez pixka bat arintzen: (bis)
saiatu zinen legeen menpe
unibertsoa ipintzen,
eta ez dakit Zeuk hainbestex
ez ote duten agintzen! (bis)

Salbatu omen gintuzun, Jauna,
ezerezaren trantzetik;
baina nik uste sortu garela
derrigorraren haizetik:
ezerezaren ezintasunak
emandako babesetik.
Ez noa bide errezetik
esplikazio atzetik. (bis)
Irtenbidea etor liteke
DENARI Jainko deitzetik;
horrela baino ez da posible
ateratzea leizetik. (bis)

Zertan berezi arrazoia eta,
zertan berezi fedea?
Zertan berezi goiko zerua
ta beheko koba-aldea?
Zertan berezi, derrigor, bitan
sustrai eta zutabea?
Alda dezagun legea,
hori da konponbidea. (bis)
Bizitokia bakarra dela
garbi dago seinalea,
eta hau ondo aton dezagun
ez al da askoz hobea? (bis)

Kontradikzio betean daude
mundu hau eta bestea;
hortatik dator bietatik bat
abandonuan uztea;
hemengo ezinak ekarri ohi du
besterako sinestea.
Zirkulu hori haustea
duzue nire ustea. (bis)
Tokatu izan zait fedea galduz
nahastuta ikustea
eta ondorioz edozer libre...
Ez al da gauza tristea? (bis)

*"Zein den makurra kobazulotik
zuzenean lur-azpira,
ikusi gabe goiko izarren
argia eta ditzira!"*

Sentimenduok hedatu dira
gure barrunbe guztira.
Kultura honen ikusmira
nolakoa den begira! (bis)
Beldurrik gabe itzul gintezke
Amaren sabel eztira,
eman zaizkigun irakaspenak
bestelakoak balira! (bis)

Unamunoren semeak gara,
aitor dezagula behingoz:
tragikotasun sentimendua
eraman ezinik, malkoz.
Behin jaio eta betirako nahi,
zeinek aldatu gu asmoz?
Bizitza motza delakotz (bis)
komeriak hortik datoz;
zeruak ere hurbildu ahala
ez damaigu lehen hainbat poz...
Makurra hau da, behin bizi behar
eta orduan hil-kapaiak joz. (bis)

Oharra: Bertso hauei esker 1993ko "Manuel Lekuona Sarian" bigarren postua lortu nuen.



Pello Esnalek sariak irabazi ditu. Rufinok ere bai batzuk. Kasu honetan aurrena eta bigarren gera ziren 1993ko Lekuona sarian.

Mustafa

Katu-zahar bat daukagu
etxeko nagusi,
maltzurragorik ez dut
askorik ikusi.
Lapurretan jan eta
muturra igurtzi,
sagu-ehizetik gero
aguro ihesi...
Ohean lo eginez
ez da gaizki bizi!

Erraz deskuidatzen da
amona gaixua,
askotan ez du ixten
gelako pasua,
katu-zaharra oraindik
ez dago itsua,
ederki gozatzen du
bere kapritxua,
amonaren ondoan
hartuz deskantsua.

Arratsa elkarrekin
igaro ondoren,
amonak, aztorata:
"Baina zer da hemen?..
Gure Jainkoak lagun
nazala! Aitaren...
Genobeba, aguro
etor hakit, arren!"
Baina katuak hanka
ama heldu baino lehen.

Umil-umil sartzen da
kutzaren azpira,
eta disimuluan
handikan begira.
Amonaren erritak
isiltzen badira
edo bere eskoba
amak erretira,
miauka irteten da
berriro erdira.

Amonari zangoak
laztandu buztanez,
eta hark gorrotorik
batere ez daukanez,
magalean hartzen du
"mixina" esanez
edo esnez bustita
ogia emanez,
baina hobe-esperantzan
katu-zaharrak jan ez.

Amak dauka etxetik
atera beharra,
amona geratzen da
zaindari bakarra.
Gajo hura han dabil
tirri eta tarra,
katuarentzat ez da
txit parada txarra...
Laster irauliko du
sutako eltze zaharra.

Oso selektiboa
da horren jarduna:
sesina hartu eta
utzi babarruna.
Berez izanagatik
janari astuna,
ondo kontserbatzen du
horrek osasuna,
dijestiotarako
baitauka eguna.

Bibote luzea du,
zebra kolorea,
gazteago zenean
oso dotorea,
ilerik gabe dauka
gaur ipurtaldea;
oraindik ez dut esan
baina da emea,
inoiz ere erditu
gabea, ordea.

Hala ere jostagai
katu-zahar aketza:
marruka pasatzen du
urtero ilbeltza
(Hilabete lehenago,
zer den hortik pentsa).
Katarrez hesiturik
dauka etxe-ertza,
balio ezagatik
usatzen du pertza.

Udaberri aldera
hasten da pasean,
beheko sagasti eta
goiko belazean.
Ondo ezkutaturik
zerbaiten atzean,
jartzen da txorikume
gaixoen ehizean,
eta akabo inork
babestu ezean!

Oilategian ere
txarkerian trebe,
batik bat oilaloka
ugari badaude.
Ondo miatuko du
aurrena goi ta behe,
tranparik baden-edo...
badaezpada ere.
Ziurtatutakoan
txitatxoei dale!

Txakurra bagenuen
halamoduzkoa,
hari bota genion
txitoen juzkoa,
jaso zuen tiro bat
fuerte askoa;
deskuidatu egin ginen,
ez zen bidezkoa...
Orduan ere libre
Mustafa gaiztoa!

Oharra: Orixe Bertsopaper-lehiaketan lehen saria irabazitako bertsoak.



Mustafa katua. Katu horri edo antzeko bali bertsoak ipini zizkion, eta Orixe saria irabazi.



Patxi Iraola bertsolaria.

Aitona mantzanila

Histori zaharrok irten zaitezte
barren hontatik kanpora,
zuen bitartez apur batean
geldituko dut denbora.
Aitona Mantzanila
aspaldidanik hila,
baina nahi nuke gogora
haurtxo nintzela nola joaten zen
eskean gure auzora.

Abuztuaren erdi aldera
egiten zigun bisita;
hura laineza hartzen genuen
eskalea ikusita!
Beldurrik ez genion
nahiz beldurgarri egon,
zarpa zahar haiek jantzita,
mutur gorria estali, berriz,
bizar zuria utzita.

Ave Maria egingo zuen
baserriko atarian,
eta segidan murgilduko zen
errezoaren harian.
Ez genion ulertzen
eta gu barrez lehertzen.
Ari zelako, ari han,
Jainkoa Bera nahas zezakeen
sudur-hizketa garbian.

Aita gurea, Agur Maria,
Kredoa edo Salbea...
Haren otoitza zena zela ez zen
esperantzarik gabea.
Gure amak askotan
asetzeko asmotan
urdai ta arrautza parea.
Toki askotan ez zen izango
askoz limosna hobea!

Horrela janda tripa aldetik
ongi berdintzen zenean,
bedeinkazioz josten gintuen
Jainkoaren izenean.
Gero igarkizunak:
"etxeko ondasunak
haziko dira aidean
eta zuk, berriz, emazte ona,
beste haur bat sabelean".

Lehen ere ez zen gure etxean
haurraren faltarik eta,
gogoan daukat "norbaitek" nola
zimurtzen zuen kopeta.
Amak, aldiz, ondradu:
"Jaunak hala nahi badu..."
konformidatez beteta.
Eskerrak ez zen beti betetzen
igarlearen apeta!


Sekula ez zen deskuidatuko
siestarako orduan...
Halabeharrez intxaur handi bat
bazen etxe inguruan,
eta haren gerizpean
euli denak bakean,
bera zurrunga-soinuan...
Ez zen esnatzen asunarekin
igurtzi arren buruan.

Ilun aurreko freskurarekin
ekiten zion lanari,
etxaburuko zelai handian
mantzalina bilketari;
bizkarra makurtuta,
belaunak okertuta
osasunaren zaindari:
bere denboran sendatu zuen
tripako mina ugari.

Ez zuen uzten komisorik,
baizik beretzat guztia,
eskulana ere erabat merke
sobre baitzeukan astia...
Ordiziara joan,
ondo saldu gero han...
A ze nolako piztia:
geronen gauzak geroni saltzen
jarduten zuen aztia!

Urte batean ez zen azaldu
denok zain eduki arren,
akabo gure agure zaharra
eta hainbat oroitzapen.
Nola egin ikerketa
nik ez nekien eta
ez nongo eta ez izen.
Beste munduan ikusiko dut
ta "requiescat in pacem".

Oharra: Orixe Bertsopaper-lehiaketa irabazitako bertsoak.



Orixe saria lau aldiz irabazi du. Horietako batean, bertso kantari Harkaitz Estiballes eta Haritz zeberioarekin.

Behi pintoa

Behi baten historia
kontatzera nator,
zer esana ugari
badaukat-eta hor.
Nireak Xenpelarri
ez dio ezer zor,
nahiz eta sarri izan
bizitza kutsakor.

Ondo gogoan daukat
gure behi pintoa,
azkar igarri nion
ez zela tontoa,
lapurretan ijara
maiz betetakoa,
auzoan zuen-eta
hark errespetoa.

Nik ezagutzerako
ez zen hain gaztea...
hanka bat bihurria,
okerra bestea;
hala ere zaila zen
geldiaraztea
ta espektakulu bat
korrika ikustea!

Larrerik onenean
ez zen deskantsatzen,
haizeari usainka
jartzen zen pentsatzen;
lanik izan ez arren
euliak uxatzen,
abilagorik ez zen
buztana dantzatzen.

Sagarretarako hark
hura jenioa!,
aspaldi jana zeukan
bere balioa
ta kikara-bete ez
esne-jarioa,
lehenbailehen saltzea zen
erremedioa.

Aita bilakatu zen
txit saltzaile fina,
galdetzen bazioten
behiaren adina:
"Oraintxe aldatu du
seigarren hagina";
Ordurako sei urte
baziren, jakina!

Erostuna ere bazen
txori aina miru,
ez zuen soltatu nahi
guk nahi beste diru,
doi-doi ziren bi mila
pezeta inguru,
akaatzen bazen zeuzkan
"Hermandad"en hiru.

Zerbait iruditzen ta
saltzea hain merke,
pentsu janez egon zen
beste urtebete;
kostatu zen hamaika
txanpon eta neke,
hobe eman bagenu
ardi baten truke.

Urtebete pasata
hasi ginen berriz,
norbait ote zegoen
Pintoaren premiz;
nahiz eta plaza bete
azkar merkatariz,
gure behia ez zuen
inork jotzen begiz.

Halakoren batean,
horratio!, saldu;
aitak jokatu zuen
tratu hartan malgu,
bistatik kendu behintzat
nahiz dirua galdu,
gizonak hortan ere
ikasi behar du.

Lau mila pezeta soil,
albokarik gabe,
muturretarakoa
ta sokak debalde,
Gaintzako Kukua zen
orain haren jabe,
hark ere erosi ez balu
ez al zuen hobe?

Azokatik berriro
etxera itzul zedin,
soka apurtu eta
bideari ekin,
baina trenak jo eta
zazpi txiki egin,
txorixotarako ere
baliatu ezin.

Behi hark ez zuen izan
inorentzat pozik:
saltzaileak ez zuen
egingo enpazik,
erostunak ere ez,
dena zorra baizik;
ta ez zien ordaindu
RENFEkoei sosik.

Oharra: Orixe Bertsopaper-lehiaketa irabazitako bertsoak.

Euskal herriari

Euskaldun sortu nintzen
eta euskaldun hazi,
nahiz orain sarri egon
damuturik kasi.
Dena ala ezer ez
ez nuen ikasi,
galtzerik nahi ez eta
ezin irabazi...
Galtzerik nahi ez eta
ezin irabazi...
Sentimenduak hitzez
nola adierazi?

Euskal Herri honengan
banuen fedea,
baina eten da lotzen
ninduen hedea,
alde denetan samin
eta nahigabea,
nagusitu delako
basoko legea.
Nagusitu delako
basoko legea,
ari gara prestatzen
geure urkabea.

Zazpi mila tributan
gaude banatuak,
elkarri atzamarka
gabiltzan katuak,
sarriegi emanez
pauso erratuak,
gurdi astuna eta
idi nekatuak.
Gurdi astuna eta
idi nekatuak,
ikaratzen nau gure
atarramentuak!

Etsipenak aurrean
jarri dit osina,
nire zorigaitza da
urrundu ezina.
Askoren kantinela:
izango bagina
bitartean zapuztu
kostata egina.
Bitartean zapuztu
kostata egina,
itsutasuna dugu
etsairik haundina!

Ilargia zakuan
azkar nahi genuke,
eta edozer egin
xede horren truke,
gorrotoa indartuz
urterikan urte;
hemen usoa azkar
bihurtzen da putre.
Hemen usoa azkar
bihurtzen da putre,
bide denek horrera
bultzatzen baitute.

"Herria" hitzak digu
betetzen ahoa,
ohiko topikoetan
galdurik gogo,
hemengo kutun eta
hango sinboloa!,
maiz entzuten da Gure
Lurra ondo doa,
ez ote da izango
dago ondo lur joa?

Xede eta bidea
gabilitza nahastuta;
batera ezin heldu
bestea moztuta.
Nahiz ideia bat saldu
ondo orraztuta,
horrek itxura hutsa
besterik ez du-ta.
Horrek itxura hutsa
Besterik ez du-ta,
herria mitoa da
pertsone ahaztuta.

Guk bezala pentsatzen
ez badu akabo!,
onez ez gatzazkio
gehiago joango,
ondoan baino urrun
ikusi nahiago;
penagarriagorik
munduan zer dago?
Penagarriagorik
munduan zer dago?
Ez al gara piztiak
baino piztiago?

"Duguna aprobetxatu
berriari bultza
eta elkar ulertu"
dira hemen funtsa.
Bake deia ez dadin
izan kontu hutsa,
hizkuntza okerena
da gerra-hizkuntza.
Hizkuntza okerrena
Da gerra-hizkuntza:
txarrean zorrotza eta
onean kamutsa!

Bata da banaketa,
bestea plurala;
horretan bai benetan
sinisten dudala,
estimatzekoa da
aukera zabala,
nork bere gustokoa
izenda dezala.
Nork bere gustokoa
izenda dezala,
eta errespetatu
geurea bezala.

Oharra: 1998ko Orixe Bertsopaper-lehiaketa irabazitako bertsoak

Baserriaren gorantz

Baserri txarrak berekin ditu
makina bat amenazu:
ganadu askok emaitza ahula
eta beste asko antzu,
laborea urri, belarra eskas
eta soro denak galtzu;
ortuan, berriz, barrabas-belar
beldurgarria indartsu.
Ez dakit zeri eman su!

Lanik ez zaigu sekula falta
arratsalde nahiz goizean:
soro, belardi, baso, garadi,
ikuilu ta baratzean.
Saiatu arren esne askorik
ez da azaltzen pertzean,
ta letxeria nola zerbitu
hau bataiatu ezean,
beste askoren antzean!?

Txekorrak hazten gure etxeak
auzoan fama galanta,
oraintxe ere bat badaukagu
berezi edo aparta,
salda egiteko primerakoa,
hezurrik ez zaio falta,
hogei erralde ez da izango
urtea jaten pasata,
ez dago gutxi kostata!

Gure astoak beti izan du
oso pausaje arina,
endemas ere dakarrenean
hark errotatik irina,
txalma-zestoak izan ohi ditu
kargamenturik haundina,
nekerik gabe garraiatzen du
zakuan daramakina,
opil batentzat adina!

Baserrietan jaun eta jabe
bilakatu da txoria,
horixe dugu gure nekeen
ordaina edo saria,
harentzat beste dira soroko
artoa eta garia,
ta kusoari apenas dion
ikara izugarria,
bertan egin du kabia!

Sagarrondoek lehen bezala
ez dute frutu ematen,
adar puntetan ale zimurrak
baizik ez dakit daukaten,
eta xoxoak ikusten dira
mokoka haiek eramaten;
sagarra biltzen mozkortzen gara,
ez sagardoa edaten,
ez da modurik izaten!


Gaztainadiak hondatu dira
gaitz makurren batek jota,
ez daiteke gaur trikurik ere
basoan larrera bota,
kattagorria alferrik dabil
arbolan gora igota
bibote beltxa gogor astintzen
gaztain morkotsaren kontra,
alerik ez du jango-ta.

Gure ortuan izan zitezkeen
leka bikainak sarritan,
bare gaiztoak moztu ezean
zuztarra jaio berritan;
ekologistak jardunagatik
haserre niri erritan,
kare bizia botatzen diot
suelto urtean birritan,
baina alfer-aferrikan!

Oso zaila da ongarritzea
berez bada lur pobrea,
eta kanpotik ekarri behar
alpalpa eta ailubrea;
ematekoa nola ez izan
hartzekoaren doblea...!
Oso ederki babesten duzu
sendiaren ohorea!,
baserri dohakabea!

Oh, baserria, beti gogoan
nola ez zaitut izango nik,
esan bezala, hainbeste etekin
atera badut zugandik!
Nire izardien xurgatzailea
izan zara betidanik,
orain artean bizi izan banaiz
ez dago bizi ezinik,
eta banoa hemendik!

Oharra: 1998ko Zapirain Anaiak Bertsoaper-lehiaketa irabazitako bertsoak.



Garai batean Ramon Etxezarretak aurkezten zuen ETB 1eko Berbaguren programan, Jon Sarasua eta hirurak.

Aitaren etxea

-Zer da Aitaren Etxea
gogotsu defendatzea?
-Erantzunkizuna hartzea,
zibilizatu batzuen gisan
konfliktua tratatzea,
gorrotoak aldentzea,
bakearen ohatzea
maindire zuriz janztea.

Izanak eta garenak
edo aldatu direnak
gureak ditugu denak.
Ezin onartu "gure herri zahar hau
emana dago onenak".
Esperantzaren aihenak
loretan nahi dituenak
gorde negar eta penak.

Historiaren ardatzak,
iltzeak eta arantzak
eta zapore mikatzak.
Eskerrak noizbait aldatu zuen
bidea iparrotzak!
Baina emandako urratsak
askok jotzen ditu txartzat...
Nik txarra horri deritzat.

Bidea hagitz luzea,
aurrealdean leizea,
hara bultzaka haizea.
Ustekabean egin liteke
egundoko hanka-sartzea;
hobe pausoak neurtzea;
batzuetan, geratzea
ez al da aurreratzea?

Zeharbegira elkarri,
gatazka dugu oinarri,
ezin gara ados jarri:
hark luberria larre nahi luke,
honek larrea luberri;
dena da liskar iturri.
Zerk egiten gaitu herri?
Edo zertan bat etorri?

Herriaren kolorea,
anitza da dotorea;
bakarra hain da pobrea!
Bide horretan aurki dezagun
batasunaren klabea,
hori da eta legea,
besteak baino hobea,
eta denon ohorea.

Botua dago testigu,
gauden beraren katibu,
gauza asko argitzen dizkigu,
nahiz eta geure aldera batzen
gogor saiatu beti gu,
honek bi eta hark hiru,
banatu egiten zaizkigu...
onartzea dagokigu.

Zurekin nahi nuke bizi,
ez zaitez joan ihesi,
neu joatea da kasi.
Denok kabitzen baldin bagara
zergatik inor berezi?
Aitzitik hurbiltzen hasi,
hizkuntza bietan hezi,
eta denok irabazi.

Aitaren Etxe zabala,
denen altzo eta magala;
zertan estutu, ahal dala?
Bakoitzak bere libertatetik
gero zedarri dezala:
eguzki ala itzala,
desio duen bezala...
Ez da helburu makala!

Abenduaren 24an, berriro jaio

Abenduaren hogeita laua
oso data ezaguna,
aurrerantzean doble motiboz
zelebratuko duguna,
nirearekin batuko baita
Belengo gertakizuna;
sekula ere ez zait ahaztuko
galdu artio zentzuna,
mundu hontara bigarren aldiz
etorri nintzen eguna.

Bi segundotan itzal liteke
begietako argia;
ez dugu asko pentsatzen baina
zeinen egia haundia!
Nik ikusi dut gure bizia
zintzilik duen haria;
oraingoz ez du amore eman,
ez bada ere lodia...
Gauerdiaren aurretik aurten
gertatu da miraria.

Kaminoetan izan ohi dugu
makina bat gorabehera:
zerorri irten bidetik edo
bestea etorri parera;
nirekin ere ia bete zen
jende askoren patu bera,
Peugeot zaharrak bidali nahi ni
defuntuen elkartera,
baina azkenean neroni ondo
ta bera txatar parkera!

Automobilak behin okertzean
nola zuzentzen ez diran,
nirea ere ibilia da
bide bazterretik jiran,
eta ondoko zanga zulora
sartu zitzaidan segidan,
ez nuen uste inolaz ere
bizirik geratzerik han.
Federik ez ta hala ere, Jesus,
zuk lagundu al zenidan?

Jaiotzakoa beste izan da
sentitu dudan larria,
latz kostatuta nauzue, gero!,
nire onera etorria.
Berriz jaioak, noski, berriro
bataiatzeko premia:
gaurtik aurrera Jesus Maria
da nire izen berria,
Eguberriei tokatzen zaien
moduan xuxen jarria.

Automobila sabelez gora,
neu barrenean katibu;
eta eskerrak aldamenean
inor ez nuen testigu!,
bestela han zer gerta zitekeen
zorionez ez dakigu.
Bizitza honek hainbat lezio
sarri ematen dizkigu,
seinale hauek ulertzeko prest
egon gaitezen beti gu.

Lehenbiziko lezioa da:
kaminoan zuhurtzia
eta bideko ikur guztiei
eman beren garrantzia;
saiatu gabe zail da jartzea
ezbeharrari hesia,
administratzen jakin behar den
ondarea da bizia,
zeren, galtzean, balio gabe
uzten du beste guzia.

Horregatik da nire kasua
alaitu eta pozteko,
ez nengoen prest neu joan eta
kotxea hemen uzteko,
orain modurik ez dudan arren
auto berria erosteko,
bizia neure eskuetan dut
dirua irabazteko,
nahitaezkoa, neu ahaztu gabe,
Peugeot zaharra ahazteko.

Jakinagatik gu ez gaudela
mundu honetan betiko,
hemen, hiltzeko gogo haundirik
inork ez du edukiko...
Hura beldurra ez ote nintzen
inoiz gehiago jaikiko;
jaiki ez ezik a ze sasoia!,
hain nengoen euforiko,
herioari ihes eginda
nola ez nintzen ipiniko?

Operatuta egon nintzen behin
eta gero istripua;
beti izan naiz moral baxuko
edo gaizki pentsatua,
horrez gainera sentitzen nuen
etxekoen desgustua,
haien gupida ez eskertzea
ez litzateke juxtua,
gainditu nahi dut pertsona txarra
izateko arriskua.

Kaminoetan izaten dira
hainbesteko destrozoak:
bai kotxea ta bai gidaria
puska txikitan jasoak,
familietan samin negarrak
ez dira une gozoak.
Hik ere ia eman hituen
kanposantura pausoak
eta oraindik barrena daukak
horri jartzeko bertsoak?

Bisita hunkigarria

Gauerdian, bapatean,
lo eta duda artean,
nigarraren katean
bakarren bat atean...
Ez uste zenik ametsa,
nahiz hala zitekeen pentsa.

Burua erdi-altxaturik
susmo txarrak bultzaturik,
lepoa luzaturik,
perezak uxaturik
nengoela adi-adi,
berriro negarra garbi.

Ohean egon ezinda,
tapakiei eraginda,
pasilorantz eginda
galdetzen nuen "zein da?"
Erantzuna lehengoa:
negarra eta malkoa.

Atea ireki eta
otarretxo bat beteta;
han zegoen gordeta
gizonaren apeta:
gaiztakeriazko grina,
ez dakit zeinek egina.

Haurra harturik besoan
ordubeteko plazoan:
so hemen eta so han
haren gorputz osoan,
ote zuen matxurarik
edo gaixo itxurarik.

Gorputzetik hainbestean,
trabarik ez du hestean.
Behintzat, hartzen hastean
gogotik ikustean
horixe pentsatu dut nik...
Ai, ez balu beste minik!

Mutila den ala neska
ari zarete galdezka,
hau ez da nire kezka,
izena ere ezta!
Baina esanda berdin dio,
deiozue Emilio.

Rousseau-ren izen polita
"gure" honi ipinita
oroituko dut zita:
dauka erabilita
umeak defendatzeko
gizartean ez galtzeko.

Izan ere gizarteak
jartzen dituen kateak:
amarentzat nekeak,
haurarentzat kalteak...
hipokresian errege,
nor da erredun orain ere?

Eta nik dudan gatazka
nola ote dezaket aska?)
Hemen daukazu bazka
eta berdin sehaska.
Hartzen zaitut oinordeko,
ez legearen menpeko.

Orain, haurra, lo egizu,
"aitatxok" esaten dizu;
ezerk ez zaitzan izu,
kuttuntxo hau torizu.
Momoa dago zelatan,
etxaburuko jelatan.

Edertasunaren koplak

Eguzkiaren hazia,
paradisutik jaitsia,
dena ederrez estaltzen duzun
argi biluzia,
diamante berezia,
hainbesteren gutizia...
Ai!, nik baneki nola apurtu
bion arteko hesia!

Begietan izar-dantza,
barrez Giocondaren antza.
Musikarekin konparatzen dut
nik zure arnasa.
Urregorritzko adatsa,
sendoa eta maratza,
Ai!, nik baneki nola izan neu
zure buruko orratza!

Ezin eskatu *Logos*-i
eta ezin eutsi *Eros*-i,
zu berriz ezin, inolaz ere,
dirutan erosi.
Bihotza arantzaz josi,
penak malkotan egosi...
Ai!, nik baneki sufrimendu hau
non eta nola eragotzi!

Bultzatzen nauzu artera,
hiperrealismo batera,
zurea beste inon kabitzen
ez dena ez ote, ba?
Irits ninteke, gainera,
eskultore izatera.
Ai, nik baneki zure petxuen
moldea nola atera!

Miss guztien erregina,
izter-lirain, gerri-fina,
Venus berari begiratuta
tornuan egina,
Jainko-eskuek, jakina!
Zuk nori ez piztu grina?
Ai, nik baneki nola gaintitu
nire nahi eta ezina!

Jilgero hegalaria,
balleteko dantzaria,
erritmoaren paradigma da
zure ibilia.
Udaberriko lilia.
Amets dezadan egia.
Ai, nik baneki nola eskatu
Jainkoari miraria!

Edertasunaren kutxak
askotan barrendik hutsak,
eta ez omen da etxe ederrik
estaltzean huntzak.
Gisa horretako hizkuntzak
arima du ispilutzat,
baina arima beharrik ez du
zure aingeru-gorputzak.

Nire begi aitzinean
zu paratzen zarenean
Ostegun Santu isladatzen zait
Irudimenean,
gordetzen duzun heinean
kopoirik bikainenean
nola Ostia sagrarioan
bihotza zeure barnean

Hainbeste goraipameni
mugak jartzea komeni:
nahiz ta zaitudan bertso hauetan
txit goian ipini,
galdeiozu edozeini,
txantajista ez nauzu ni...,
Zure gorputza zurea da-ta
nahi duzunari eskaini.

Felix

Irribarrea zuen
aurkezpen txartela,
hizketan ere ez zen
batere motela.
Beti azaldu ohi zen
bera zen bezela,
gizatasun bermea
aurrean zuela...
Garai txarrean beti
hausten da kordela.

Mendian burutua
azaña handiak,
maitemindurik zeuden
mendia eta biak,
baina inoiz naturak
haserrealdiak...
"Felixek itxi ditu
betiko begiak",
negarrez kontatu du
anaia "bikiak".

Etxe berean jαιο,
elkarrekin hazi,
elkarrekin mendia
maitatzen ikasi;
siames perfektuak
zinetenak kasi,
orain gisa horretan
patuak berezi;
ez zenuten inolaz
trago hori merezi!

Ziur naiz ez duzula
etsiko, Alberto;
zuk badakizu hori
guk baino hobeto;
erraz emango dizu
Felixek ameto,
gero mendiko berri
zuzen emateko,
zu utzi zaitu eta
gure Ararteko.

Lehen ere ez zarete
geldirik egonak,
eman dituzue txit
dokumental onak:
tontor ikusgarriak,
izotzezko hormak,
beste kulturetako
andre eta gizonak...
Zuei esker ditugu
harreman sakonak!

Zeuk ere azaltzen
zineten sarri han,
epopeiaren isla
beti aurpegian;
gailur altuenetan
ta kale gorrian!
Neketik osatuak,
janetik neurrian...
Abenturaren lege
erakargarrian.

Abenturazalea
omen zinen, Felix.
Gizona ezin bizi,
nonbait, soilik ogiz;
hori asumitua
zeneukan zuk egiz...
Mendia txikitatik
jo zenuen begiz,
espirituzko barne
mintzoari segiz.

Baina igo aurretik
zenion abestu;
horren berri gaur egun
hemen zeinek ez du?,
bertsolaria izan
baitzinen hain juxtu.
Beraz, bi aldiz zaigu
bekokia beztu,
baina doble oroitu
eta inoiz ez ahaztu.

Joan zinen gugandik,
baina ez erabat,
gogoratzen zaitugu
ai!, gainera, zenbat?
Nire ametsen blankoa
izan zinen zu bart.
Honela amaitu zen
elkarrizketa bat:
"Ezin naiteke bizi
Himalayatik at".

Hain zinen seme ona,
hain zinen jatorra,
Himalayak beretzat
nahi zintuen, horra!,
nahiz eta hori guretzat
den oso gogorra!
Erori arren zutik
dirauzun enborra,
kimuak badituzu,
zara hilezkorra.

Don Antonio Gaintzan

Urte askotan izan zaitugu
Benetako zerbitzari,
behar bezala kaso eginez
herri eta elizari.
Apaiz bezala eutsi diozu
behin emandako hitzari;
zure laguntza ezin hobeto
etorri zaio Gaintzari.

Herri txikia izanagatik
ibili handiak sarri.
Aitona-amona asko etxean
gaixorik edo elbarri,
eta zu haiei poza banatuz
zoaz baserriz baserri,
Jesusen nahia ezin liteke
praktikan hobeto jarri!

Eskerrik asko, don Antonio,
portatu baitzara jator,
ardiak ondo zaindu dituzu,
apartatu gabe inor,
eta herri hau bihotz-bihotzez
esker ematera dator,
onar ezazu gure eskaintza,
badizugu-ta hainbat zor.

Lantegitik bota

Niri gertatu zaidan kasua
hain da desesperantea,
bertso batzuen harian zaila
izango zait esatea
nagusi batek etxe batera
ekar lezakeen kaltea.
Nire denboran tokatu izan zait
saiatu eta jatea...
Zein gogorra den eskuetatik
hori ere joatea.

Don Antonio deitzen diote,
Auzo berean jaioak gara
nagusi jauna eta ni.
Proportzio ona jarri omen dit,
salida ona eskaini.
Salidarikan ez nuela nahi
ez al hekien, Andoni?
Lepotik soka erantsi eta
esaten al didak segi?

—Hik ondo dakiK laNgintza honetan
ez dela bide errezik.

Niri ere pena ematen zidak,
Kandiko, hiri ez ezik.

—Konbentzitzea pentsatzen baduK
etzakela egin ametsik.

Nik ez diat nahi nagusi onik
eta lagunaren hitzik,
eskubideak errespetatzen
dakien gizona baizik.

Produkzioa igo beharra
urte batetik bestera,
edo bestela arrisku latza
geratutzeko atzera.
Langileari nik hartzen diot
ardi-zaharraren tankera:
gauza den arte ahalik azkarren
zuku guztiak atera,
eta bajatzen hasten denean
berezi ta bazterrera!

Garai batean beltz lan egiten
genuen guk tailerrean,
astoak baino karga gehiago
erabiliz bizkarrean,
sekula ere makurtu gabe
zailtasunaren aurrean.
Orain ostikoz jo eta bota
estimatu beharrean.
Zahartzaroko gure ametsak
ez zeudek toki txarrean!

Lagun izaten segi dezagun
eskatu dit Antoniok,
ez omen dago motiborikan
haserretzeko gu biok.
Eta hik, Kandido, berriro ere
beste masaila jarriok!
San Martinetan ere bizirik
irteten ditek zerriok!...
Nik malko baino ur gutxiago
zeramak zenbait erriok!

Andreak ez du kanpoan lanik,
sekula ez du izan-ta,
baina ez pentsa bizi izan denik
lanari bizkar emanda:
zorionean, hiru umeren
amaordea izan da.
Rumaniatik ekarria bat,
besteak Txinara joanda...
Gure problema ez da konpontzen
"lagunak gaituk" esanda.

Hamaika aldiz nire zapatak
jantzia da haur-garaian,
gure amonak aurkitu eta
hanka-hutsik beheko zelaian;
koskortuta ere hurbildu ohi zen
labeko ogi usaian,
gari alerik zen bitartean
gure etxeko sabaian.
Orduantxetik dabil Andoni
"zorrak" pagarazi nahian.

Ai, Antonio, nolakoa haizen
nabarmendu hau ekintzak.
Alde batera eskertzen diat,
baita hartu ere aintzat.
Baina bakoitza bere lekuan
ipintzen badu bizitzak,
haizeak beti toki beretik
joko duela al deritzak?
Esperantzari aterik ezin
itxiko zioat behintzat!

Marinoren erruz!!

Marinoren omena
zela Ordizian
barreiatu behar dut
mundu guzian;
San Blas eguna bezain
fetxa berezian,
hantxe elkartu ginen
festa gutizian:
bake eta grazian,
kantu-eresian,
umore bizian,
nola ez hasi han
asko pentsatu gabe
geroko auzian? (bis)

Ondo hartu genion
festari tamaina:
bertsotan Iraola
eta Egaña.
Entzulegoan ere
jende sail bikaina,
gure "batzoki" dena
betetzeko aina...
Ondo jan estraina,
ondoren txanpaina,
bapo alajaina!,
ta iaio mingaina...
Hala ere andrea
ezin engaina. (bis)

Ordizia utzirik,
gero Zaldibira,
gautxoriak elkartzen
diren kabira.
Mundua konpontzea
genuen gupida.
Bi parlamentario
ginen gu guztira,
besteak begira
guri aurpegira,
nonnahitik "parida",
taberna hori da...
Zer esan nun jakingo
banu sikira!!! (bis)

Tabernatikan bota
halako batean,
banaka ere larri
ginen atean;
gero parlamentua
atari partean,
ilargi-eguzkiek
bat egin artean.
Ahoa betean
elkar-atakean,
beldurra katean,
lotsa apartean,
hitzak lainoetara,
txisa parkean. (bis)

Zortzi t'erdiak edo
zirelarik kasi,
etxera jo genuen
guk "bizi-bizi".
Bereak bota eta
andrea ihesi;
etxeko tresna denak
buelbaka hasi,
nahiz argia izi,
deus ezin ikusi.
Hoinbeste desgrazi
al nuen merezi?
"Erruki zakizkigu
Santa Engrazi!!!" (bis)

Ez nintzelako ibili
kontuz eta azti,
astoa karga nuen
asko eta gaizki,
zuzen eramatea
gero zail da noski;
noizbait ailegatzea
ez al nuen aski?
Kartola eta saski
beterik gain-azpi,
txanpain eta whisky
leporaino busti!
Ohera sartu nintzen
txalma eta guzti!

Itzuli zenerako
"emazte pretoa"
bazkaria han neukan
gozo askoa:
"arroz a la cubana"
eta oilaskoa.
Baina nork egin hari
orduak gustoa?..
Haren bekoskoa
ez zen berezkoa;
malko arrastoa
ta mingain gaiztoa:
belarriak jaitsita
dabil astoa.

Andrea haserretu,
partidua apurtu;
Marinok ziklismoa,
berriz, agurtu.
Ezin liteke askoz
gehiago makurtu:
jausitako arbola
ez al naiz bihurtu?
Hoinbeste egurtu!..
Beharko zuhurtu!
Kopeta zimurtu,
pentsaketan urtu:
zerbait izango ahal da
penaren frutu! (bis)

Gauza hauekin inor
ez bedi harritu,
arriskuan dagonak
ondo aditu;
nahiz ta ondorenean
ezin konprenditu,
normahik egin lezake
hoinbeste delitu:
bihotzak zauritu
eta ofenditu,
pakeak urritu.
Baina ez sufritu...
Azkenean denborak
sendatzen ditu. (bis)



Patxi Iraola eta Goiburu bertsolariak.

Txoriño bati

Lizar gaineko txotx iharrean
txoria dago kantari,
txio hotsean amodioa
deklaratuz maiteari.
Nik ondo dakit kantu lanean
ez dela alferrik ari:
ugalkuntzaren atari,
amak deiadar aitari (bis).
Ene txoriño, nire gogoak
badauka hainbat eskari:
zure gorantzan idatz dezadan
eragin nire lumari (bis).

Zeure barrengo sentimentuak
agertzen dituzu ozen,
behatu gabe biharko zeinen
egun estuak datozen,
instintu lege unibertsala
aplikatuz zuzen-zuzen:
goroldioa umotzen,
adaxkak elkarri lotzen (bis)
Ari ta ari atsedean gabe
xapaka buztina jotzen,
arrautzatxoak, bizi bihurtuz,
habian gorde daitezen (bis).

Lizar ondoko iturriari
bor-borka dario ura;
dena kolpean agortu barik
izan ezazu ardura,
bebingo egarriz, soilik, ez baita
inor etortzen mundura.
Gerorako arrenkura
ez al duzu kendu gura? (bis)
Bihar lagunek zerbitzekotan
ez zaitezela lilura,
bestela beti biziko zara
txori galduen modura. (bis)

Txoriak beste legerik ez du:
egunsentian abestu,
bere kumeen etorkizuna
alaitu eta erreztu,
ilusiozko klabean mintzo,
baina egia babestu;
ikusten dena amestu
eta huraxe sinestu; (bis)
ene iduriz, etorkizunak
beste biderikan ez tu:
"beti etorkizun" nahi ez baduzu
har ezazu zeure esku! (bis)

Bihar kumeak hedatutzean
Lizardiko tantaietan,
Aurki litezke kulparik gabe
txit egoera zailean.
Zeinek lekike non aukeratu:
gizaki ala saietan
okerrena etsaietan,
gorrotoaren gaietan, (bis)
sarri askotan ez dagolako
zeinezkorikan bietan...
zuk, behintzat, ongi aholka itzazu
lehen hegada horietan (bis).

Mezu garbia igortzen digu
negar anpulu gorriak;
berdin, orbeldu baino lehenago
eroritako orriak.
Murmuriozko kontrasteetan
batzen ditu iturriak:
muinoetako berriak
mezu etsipengarriak (bis).
Lizar apala estaliko du
arantzadun elorriak...
Txoriak gero txori-izugarri
munduko joan-etorriak.!!! (bis)

Orain isilik ikusten zaitut
lehengo abeslari fina.
Zer ote duzu: gogorik eza
ala kantatu ezina?
Beldur-musika isila bada
Lizardiko erregina,
hau bizimodu xixtrina!
Hortik hasten da estraina; (bis)
ondorenean etor liteke
Jainkoak soilik dakina...
Zein den makurra ito beharra
txoriñoak kantu-grina!!! (bis)

Laino beltz batzuk marrazten dute
lizar arteko paisaia;
zeruko izarrek tiralinea
morearekin arraia;
gaur trumoitsuak erdiminetan,
egunsentira bidaia.
Kaudal arrezko ibaia,
Gorroto-sutan lastaia. (bis)
Dibortzioa ez da hain txarra,
lehen izan bada ezteia,
baina Lizardin bergauza dira
etena eta uztaia. (bis).

Baina ez dute txoriñoaren
bertsoek moralejarik.
Gauzak aldrebes badaude ere
ez dut emango kejarik.
“Moko guztiak apurtu arte
liskarrean eten barik”.
Nietzsche-ren oihu ugarik
bezala dio Lizardik (bis).
Bere gogoa horrela bada,
zer egingo diot, ba, nik?
Muga guztiak gainditu dira
edo ez dago mugarik! (bis)

**Oharra: 1992ko Lazkao Txiki Bertsopaper-lehiaketan,
lehenengo saria.**

Aurkibidea


Martintxuloko ura	9
Bertsolaritzaren haritik Zaldibiraino	13
Nañarri mendia (1975).....	23
Astoa eta idia (1974).....	25
Kargu hartzaileari.....	27
Komuna (1974).....	29
Lazkao Txiki (1975eko iraila).....	31
Joxe Agirre (1974)	35
Ordiziatik Zaldibira	36
Manifestazioa erresidentziaren alde (1976-II -29).....	37
Lasarteren liburuari (1976).....	39
Xalbadorri (1976-XI-7).....	41
1975, emakumearen urtea	43
Disimuluan (1976)	45
Idiazabal eta Zepai saria (1974-I-16).....	47
Aita Zavala eta Auspoa (1974)	49
Euskera eta jakintza asteak (1974ko udazkena).....	51
Indar nuklearra (1975ko urtarrila).....	53
Ikurriña legalizatu (1977ko urtarrila).....	54
Lanaren inguruan (1976-IX-21).....	57
Emakumearen bularretakoari (1974).....	59
Barrungo piztiari (1977).....	60
Guraso izateko zain (1976).....	61
Ezkontza (1975-VII-23).....	63
Berak dakienari (1976)	64
Jaiotetxeari (1976)	65
Txikiren gorpua Zarautza ekarri zutenean (1977ko urtarrila).....	66
Nafarroa (1977ko uztaila).....	67

Nire kantu liburua (1977ko azaroa).....	71
Haur baten zain (1978ko martxoa)	73
Haur baten jabe (1978ko uztaila)	77
Iruñeako zezenak (1978-VII-11).....	79
Hamalau urteko ama (1978)	81
Urte Berri goizez halamoduzko bati (1980).....	83
Euskal Herriari (1980ko urtarrila).....	85
Zuri begira (1980ko apirila)	89
Maiatzaren bata (1980).....	91
Konturatu gabe bertotan (1980).....	93
Estatutua (1980)	95
Etxeko gizon (1981)	97
Zantzu ilunak.....	99
Hurrengoan beharko (1982).....	100
Aitona hil (1982)	101
1984 urtea.....	102
Gogoeta egun seinalatuan (1984).....	103
Zorionak denoi.....	107
Gure nortasuna	109
Nire liburua	111
Lazkao txikirekin zita	115
Ume elbarri baten argazkia.....	119
Ala ona da, edo Piszinan ito	123
Guardasola.....	129
Nahi eta ezin	132
San Franziskoren liburutik.....	135
Nañarri.....	139
Kobazulotik garrasi.....	143
Mustafa	149
Aitona mantzanila	155
Behi pintoa.....	159
Euskal herriari.....	163
Baserriaren gorantzan.....	167
Aitaren etxea	171
Abenduaren 24an, berriro jaio.....	175
Bisita hunkigarria	179
Edertasunaren koplak.....	182

Felix	185
Don Antonio Gaintzan.....	189
Lantegitik bota	190
Marinoren erruz!!	194
Txoriño bati	200

Auspoa-ren azken liburuak:

- 272 M. Aizpurua:** *Hasi, Azpillaga*
- 273 E. Larre:** *Ene artzain etxolak*
- 274 J. M. Aranalde:** *Xalbadorren barrua*
- 275 Joxe Lizaso:** *Nere aldiko kronika*
- 276 Jose Insausti:** *Beti bertsoa buruan*
- 277 Manuel Matxain:** *Uste gabean*
- 278 I. Olea:** *Ostiraleko kronika I*
- 279 I. Olea:** *Ostiraleko kronika II*
- 280 S. Zapiain:** *Markesgaiak / Dirua jainko*
- 281 A. Zavala:** *Estropadak bertsoetan*
- 282 J. M. Iriondo:** *Segi, Mugartegi*
- 283 R. Iraola:** *Nañarriri begira*



“**N**ik ez dakit bertzek nola egiten dituzten kantuak, baina eni segurik ederki gostatzen zaut batzuetan”

(Xalbador)

Lanak kostatu gabe egiten dakienak a ze suertea daukan! Ni bat nator Urepelgo harrigarriarekin: “Gosta gabe deus ez”. Baina beste ditxo itxaropentsu eta akui-lariago bat erantsi behar zaio aurrekoari: *Gustuko lekuan aldaparik ez*. Eta jatekorik gozoena baino gustukoago nuen nik bertsoa. Horregatik, nekearen arrastorik gabe ibili nintzen bertsoaren pentzean, hitz neurtuaren larrean, txerria ezkurtean edo astoa pagotxetan baino areago. Ez dakit zergatik egiten duzuen barre? Zer du txarrik bi animalia horiekin konparatzeak? Ardiak eta otsoak behar al dute, beti, protagonismoa? Edo zakurrak eta katuak?

Nire bertsoak ez dira ezeren alde eta inoren kontra. Izatekotan ere bertsoaren alde dira. Nire bertsoek euren burua dute xede eta jomuga. Ez dira ezeren bitarteko, ezta deusen salbatzeko ere. Gozatzeko dira. Edo azkura eragiteko. Minik ez, hori ez, inola ere!

ISBN 84-95378-63-9



Auspoa